



IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Marko teorikoa





Hezkuntza berrikuntza



Hezkuntzako ikuskatzailetza



Irakas Sistema Ebaluatu eta
Ikertzeko Erakundea



2012ko maiatza

IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIA

	Aurkibidea	1
1. Sarrera.....		2
2. Konpetenziaren justifikazioa.....		3
2.1. Oinarriak eta aurrekariak		3
2.2. Konpetenziaren gakoak.....		6
2.3. Zenbait erronka		10
3. Konpetenziaren deskribapena.....		12
4. Ikasten ikasteko konpetenziaren dimentsioak.....		15
4.1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako azpi-konpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.....		16
4.2. DBHko 2. mailako azpi-konpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.....		26

1. Sarrera

Haurrek ikasten ari direla jakin aurretik ikasten dute; ikastea bizitzan zehar garatzen duten jatorrizko gaitasuna da, batzuek besteek baino hobe kudeatzen dutena, hainbat faktoreren arabera: psikologikoak, sozialak, kulturalak, politikoak eta bestelakoak.

Nola ikasten den jakiteko ardura aspalditik dator. Horri buruz Luis Gomez Llorentek dioenaren arabera «*Bizitza guztian zehar ikastea gizateria bera bezain zaharra da. Horren inguruko hausnarketa kritikoa eta eztabaida dira berriak*».

Duela urte gutxi batzuk arte hezkuntzaren ardura nagusietako bat herritar guztiek derrigorrezko hezkuntzan ikasi beharreko oinarrizko ikaskuntzak aukeratzea zen, horiek ikasi ezean etorkizunari desberdintasun-egoera batetik aurre egin beharko baitzioten. Ardura hori Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan eta Irakaskuntza Minimoen Dekretuan islatu zen; horietan, nahitaezko eskolatzearen etapa bakoitzean landu beharreko oinarrizko edukiak zehazki jasotzen ziren. Edgar Morinek adierazi duenaren arabera, ordea, diziplinaren logikak ezagutzak zatitu ditu eta ondorioz fenomenoaren zailtasuna ulertzea eragozten du.

Ostean, globalizazioak, jakintzan oinarritutako eredu ekonomiko eta sozialen hedapenak, munduko hainbat eskualde ekonomikoren arteko lehiak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean egindako aurrerapenak eta bestelako gertakariak esparru akademikoan eta politikoan hausnarketa sortu dute bizitzan zeharreko ikaskuntza sustatzeko behararen inguruan, ikaskuntza horrek Europako herritarren prestakuntza integrala eta ikasleak bizitza heldura eta lan-merkatura arrakasta pertsonal egoeran sartzea berma dezan. Europar Batasunaren helburuetako bat gizarte demokratiko eta bidezkoak indartzea eta haiek munduko lehiakortasun ekonomikoarekin bateratzea da.

Antzeman da ezagutza ahul eta dinamiko bihurtu dela, baita eskolak jadanik ezin duela jakintza sendo eta iraunkorrik bermatu ere, orain arte egindako moduan. Aldaketa horiek norberaren autonomia indartzeko beharra adierazten dute, testuinguru desberdinetan eta beste pertsonekin edo beste pertsonengandik ikasteko eta etorkizuneko egoera aldagarriari aurre egiteko. Elena Martinek etorkizuneko herritarren prestakuntzaz hitz egitean honako gaitasunak aipatzen ditu: «*[Etorkizuneko herritarrek] beren bizitzarekin zer egin nahi duten, hori lortzeko zer baliabide behar duten eta hori nola lortu modu autonomoan planifikatzeko gaitasuna izango dute. Alegia, ikasten ikasten irakatsi dieten herritarrek izango dira*».

Zenbait pertsonak egungo gizartearen aldaketak baliatzen dituzte erronka berriei erantzuteko erakunde gisa eskolak duen balioa zalantzan jartzeko, eta planteamendu indibidualistak, postmodernoak eta liberalak defendatzen dituzte. Aldiz, *Ikasten ikasteko* helburuak ikuspegi inklusiboa indartzen du, hezkuntza-sistema bermatzen eta konpentsatzen duena, eta oinarrizko kompetentzien zentzu generikoarekin bat eginez, ikasle guztiek ahal duten lorpenik handiena egitea bilatzen duena, baita hezkuntza-sistemak ekitate- eta kalitate-mailarik handiena lortzea ere.

2. Konpetenziaren justifikazioa

2.1. Oinarriak eta aurrekariak

DeSeCo¹ (*Defining and Selecting Key Competencies*) delako txostenak galdera zuzena proposatzen du laborpen exekutiboaren hasieran: «*Zer gaitasun behar ditugu ongizate pertsonala, soziala eta ekonomikoa lortzeko?*». Nahiz eta ikusi gaur egun pertsonak egungo eta etorkizuneko munduaren erronkei –norberarenak eta kolektiboak– aurre egiteko gaitasun asko behar dituztela, elkarren artean loturiko kategorien kopuru murriztu batean oinarritzen da:

1. Tresnak era interaktiboan erabiltzea.
2. Talde heterogeneotan elkarri eragitea.
3. Nork bere kabuz ekitea.

Proposamen honek egungo gizarteen eredu aldaketari erantzuten dio. XX. mendeko gizarte industrialek tresna eta prozesuak menderatzea bermatzen zuen eskola sustatzen zuten bitartean, eraldatze ekonomiko eta sozial azkarrak eta ezagueraren eta informazioaren gizartearen erronka berriek –globalizazioaren testuinguruan– moldatzeko gaitasuna garatzea eskatzen dute eta, ikuspegi pertsonalean, gaitasun horrek herritar bakoitzari bizitzan zehar ikasten jarraitzea exijitzen dio, enpleguari eusteko helburuarekin, gizartean partaidetza bermatzeko eta gizarte-bazterkeria saihesteko.

Beraz, ez da merkatuaren eskariak sortutako beharra bakarrik, ezagueraren gizartearen ezaugarriek eta gizartearen antolaketan eta pertsonen arteko harremanetan izandako aldaketek sortutako beharra ere bada, malgutasun mentala eta aldaketen eta ziurgabetasunen aurrean izaera positiboa izatea eskatzen baitute.

Eta –jarraitzen du DeSeCo txostenak– helburu kolektiboak lortzea, bidezko gizartea sustatzen duten balio partekatu batzuetatik abiatuta (balio demokratikoak eta garapen iraunkorra lortzea). Testuinguru honetan *ikasten ikastea* tresnen artean nagusiena bihurtzen da herritar guztiei (aukera gutxiko herritarrak barne: hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleak, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden ikasleak eta ikasle helduak) bermatzen baitie hezkuntza eta trebakuntza bizitza guztian zehar, ikasteko edozein egoeratan (formala, ez-formala edo informala).

Eskolak bere agendan du, beste erronken artean, ikasteko irakastearen beharra; zera da, ikasleei beharrezko baliabide pertsonalak eta pertsonen artekoak ematea erronkei beren kabuz aurre egiteko, beren ezaguera eta trebetasunak aktibatuz eta arazoak arrakasta-bermearekin konponduz. Ikasle bakoitzak bere ikaskuntzaren protagonista behar du izan, ikaskuntza horretaz jabetu eta bizitzan zehar lagunduko dion gaitasun pertsonalaren sentimendua lortu. Ildo horretan lan egiteak, gainera, zera dakar, ikaskuntzarako giro aproposa sortzea, testuinguruarekin bat datorren proiektu komuna eraikitzea eta komunitatearen eta bere eragileen konpromisoa lortzea partekatutako helburuetara iristeko orduan. Hori gaitasun

¹ DeSeCo (2005): La definición y selección de competencias clave. Resumen ejecutivo. 20 or. En <<http://www.deseco.admin.ch/bfs/deseco/en/index/03/02.parsys.78532.downloadList.94248.DownloadFile.tmp/2005.dscexecutivesummary.sp.pdf>> (gaztelaniaz).

guztietan beharrezkoa bada, are gehiago ikasten ikasteen, zeharkako izaera dela-eta. Honela, DeSeCo txostenaren arabera *Ikasten ikasteak* izaera metakompetentziala du. Elena Martinek eta Amparo Morenok gauza bera diote²: oinarritzko kompetentzien artean oinarritzkoena da.

Zentzu horretan, XXI. mendearen lehenengo hamarkadan hainbat nazioarteko ekimen gauzatu dira, eta horien interesa funtsezko kompetentzietan oinarritu da: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta Suitzako Estatistika Bulego Federalak aipatutako DeSeCo (kompetentzien definizioa eta hautaketa, 2003) proiektua sustatu zuten; Eurydice sareak kompetentzien inguruko informazioa bildu zuen (2002); Europako Batzordeak proposamen bat aurkeztu zuen (2004) kompetentzia nagusiak antzemateko; UNESCOk txosten bat prestatu zuen bizitzarako trebetasunen inguruan guztiontzako hezkuntzaren barruan (2002); PISA ikerlanak biharko mundurako arazoek konponketari buruzko txostena aurkeztu zuen (2004); LEARN («Life as Learning») proiektuan parte hartzen duen Helsinkiko Unibertsitateak, hainbat ikerlan antolatu ditu ikasten ikasteari buruz...

Europako Batzordeak proposatutako oinarritzko zortzi kompetentzietako bat (2004) *Ikasten Ikastea* delakoa da eta, nolabait esanda, beste guztien atzean dago. Kompetentzia hori zehaztea zaila da, arreta hainbat xehetasunetan jarri baitaiteke, eta zeharkako izaera baitu.

Honela, Europako Batzordeak, Europako Erreferentzia Markoan, «Ikasten Ikasteko» kompetentziaa honela definitu zuen:

Ikaskuntzari ekiteko eta ikasten jarraitzeko, bakoitzak bere ikaskuntza antolatzeko eta denbora eta informazioa modu eraginkorren kudeatzeko kompetentzia, bai bakarka bai taldeka. Kompetentzia honek berekin dakar ikaskuntza-prozesuaz eta ikasle bakoitzaren ikaskuntzaren beharrez jabetzea, dauden aukerak zehaztea eta oztopoak gainditzeko gai izatea ikaskuntza arrakastaz amaitzeko. Kompetentzia horrek berekin dakar ezagutza eta gaitasun berriak lortzea, prozesatzea eta bereganatzea, baita orientabideak bilatzea eta erabiltzea ere. «Ikasten ikasteak» zera lortzen du, ikasleak aurreko ikasteko bizi-esperientzietan oinarritzea ezaguera eta gaitasun berriak hainbat testuingurutan erabiltzeko, bai bizitza pribatuan, bai profesionalean, baita hezkuntzan eta prestakuntzan ere. Motibazioa eta konfiantza nahitaezkoak dira kompetentzia hori lortzeko³.

EBko herrialde bakoitzak eta, Espainian, autonomia-erkidego bakoitzak bere curriculum kompetentzietara egokitu behar izan du. Zentzu horretan, Euskal Herriko curriculumak⁴ planteamendu horren berri eman du eta zera adierazi du ikasten ikasteko kompetentziari buruz: «*Ikasten ikastea ikaskuntzan hasteko kompetentziak*

² MARTÍN, E. y MORENO, A. (2007): Competencia para aprender a aprender. Madril. Alianza Ed.

³ Comisión Europea (2004): Competencias clave para el aprendizaje permanente. Un Marco de Referencia Europeo. Brusela. (<http://ec.europa.eu/dgs/education_culture/publ/pdf/ll-learning/keycomp_es.pdf>).

⁴ EHAA, 218. zk. (2007-11-13): Gehigarria. III. eranskina, 15. orrialdea. Kontsulta egiteko: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarritzko_gaitasunak.pdf.

izatea da, eta gero eta modu eraginkorragoan eta bakarrik ikasten jarraitzeko gai izatea bakoitzaren helburuen eta beharren arabera».

Jesús de la Fuentek⁵ dioenaren arabera, konpetentzia horrek «*izen asko jaso ditu konpetentzia bera aipatzeko: ikasteko autonomia, hainbat egoeratan erabakiak hartzen jakitea, ikaskuntzaren gainean hausnarketa egitea, ikasterakoan estrategikoa eta trebea izatea, edo bizitzan zehar ikastea*». Konpetentzia hori adierazteko termino-aniztasun horrek dimentsio batzuk besteak baino gehiago azpimarratzen ditu, kontsultatutako autoreen arabera edo Autonomia Erkidego bakoitzak landutako markoen arabera.

Ikasten ikasteko konpetentziak izaera integrala du. Horrek zera adierazten du, ikaskuntza-prozesuaren hainbat fase dituela barnean:

- Zereginen planifikazioa helburu jakin batzuen arabera, ikaskuntzaren testuingurua eta bakoitzaren gaitasunen eta erabilgarri dauden baliabideen balorazioa.
- Zereginak egiteko prozesua garatzea, eta estrategiak, teknikak, denborak eta erabilitako metodoa kudeatzea.
- Azkenik, lortutako produktuari buruzko hausnarketa, izandako zailtasunak eta ikasitakoa beste egoera batzuetan erabiltzeko aukerak.

Honekin guztiarekin konpetentzia horrek ikasten den moduaren garrantzia azpimarratzen du, ikasketa prozesuena eta horietan eragiten duten faktoreena, ikasleek beren ikaskuntzaren gainean garatzen duten kontzientziarena, ikuspegi tradizionalak ez bezala, lortutako produktuan jartzen baitzuten horiek enfasia, batez ere ikaskuntzaren eraginkortasuna ebaluatzeko orduan.

Ikasten ikastearen ikuspegi konpetentziala, ordea, hainbat etapatan oinarritzen da, eta gauzak egiteko (pentsatzeko, jarduteko) ez dagoela modu bakarra azpimarratzen du. Edonola ere, horrek ez du esan nahi emaitza baloratu behar ez denik, finean, egindako lanaren ondorioa ikasketa-prozesuaren beste fase bat da-eta (problema bat ebaztean, aukerak bilatzea, atzerriko hizkuntza batean komunikatzea, produktu bat egitea...). Hortaz, emaitza horren barruan bildutako zati gisa, emaitza hori lortzeko moduan jartzen du interesa; adibidez, bakarrik lortu den, edo beste norbaitekin lankidetzan, intuizioaren ondorio izan den, edo, aldiz, planifikazioarena eta hausnarketarena. Ikuspegi honek zera ulertzen du, emaitza etengabeko ikaskuntza-prozesu zabalaren bitarteko aldi bat besterik ez dela, eta ikasle bakoitza dela horren protagonista, eta haiek, egindako aurrerapenaz jabetuta, lortutako helburuak eta oraindik ez dakitena antzematen dituztela (edo egiten ez dakitena), beren helburu pertsonalak hobetzen eta esperotako emaitzak etorkizunean proiektatzen lagunduko dieten estrategiak eta baliabideak antzematen dituztela. Produktuak, azken finean, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren emaitza partzialak direla ulertzen da.

Ikasten ikasteari buruzko literatura zientifikoak bi paradigmatan labur daitezkeen eztabaida batzuk islatzen ditu: psikologiko-kognitiboa eta soziokulturala⁶.

⁵ FUENTE, J. de la (2010): "Estrategias metodológicas y de evaluación para promover la competencia para aprender a aprender". *Aula de Innovación Educativa* 192. zk. (2010eko ekaina), 11-14. or.

⁶ HOSKINS, B. & FREDRIKSSON, U. (2006): Learning to learn – a draft overview of key questions. *Learning to learn network meeting Report*. Ispra (Italia). 9-18. or. <<http://crell.jrc.ec.europa.eu/download/Conferences/L2Lnw1.pdf>>.

Paradigma psikologiko-kognitiboa, batez ere, ikasleak ezaguera barneratzeko zein mekanismo erabiltzen dituen aztertzeaz arduratu izan da; adibidez, gizakien garunak informazioa nola jasotzen duen, nola prozesatzen eta gordetzen duen ikertu du, eta memoriaren funtzionamendua ere aztertu du. Adierazgarririk onena Piaget da.

Paradigma soziokulturalak ere ezaguera nola eraikitzen den jakitean du interesa; hala ere, arreta prozesu kognitiboetan eta sozialetan jartzen du. Paradigma honen teoriak, besteen artean, honako hauek garatu dituzte: Vygotsky, Leontjew, Bernstein, Bruner, Claxton, Cole, Galperin eta Lompscher. Ikaskuntza testuinguru sozial batean txertatuta dagoela eta prozesu sozialetan garatzen dela dioen printzipioa sustatzen du; honela, ikaskuntzaren interakzioen eta gaitasunen ekoizpen sozialaren garrantzia azpimarratzen du. Paradigma honetatik abiatuz, *Ikasten ikasteko* konpetentzia ezin daiteke ikaskuntzaren testuingurutik kanpo ulertu (ikasgelak, gazteen elkartek, lan-ingurunea, familia, berdinen arteko adiskidetasuna, helduentzako eskola...) ezta ikaslearen eta bideratzailearen arteko harremanetik eta interakziotik kanpo ere (bideratzaileak ez du zertan beti irakaslea izan, batzuetan beste ikasle bat, gizarte-langile bat eta abar izan daiteke).

Bi perspektiba horietatik eztabaidak aurrera jarraitzen du eta zenbait proposamen eta galdera interesgarri proposatzen dituzte. Hona hemen zenbait argudio:

- Taldearen baloreak, ikaskuntzaren aurreko esperientziak eta eredu pedagogikoa testuinguru sozialaren parte dira eta eragina dute *Ikasten ikaste*an.
- Ikaskuntzaren ikuspuntutik, hiru galdera: 1) Zein da ezagutza garrantzitsua gaur egun eta etorkizunean?, 2) Zein da eskolaren edukiarekin lotuta dagoen oinarrizko ezagutza? eta 3) *Ikasten ikasteko* konpetentzia lantzeak konpetentzia horren printzipioen eta helburuen oinarrizko ezagutza eskatzen du.
- Zer garrantzi dute IKTek⁷ *Ikasten ikasteko* konpetentzian?

2.2. Konpetentziaren gakoak

Ikasten ikasteko konpetentzia artikulatzen duten hainbat ikuspegiren artean, ildo batek –esan dezagun tradizionalenak– konpetentzi hori prozedurak ikastearekin lotu du. Ikasleek lortu nahi duten helburuarekin bat datozen teknikak eta prozedurak garatuko eta erabiliko dituela bermatzean datza. Zentzu horretan, eskolarena litzateke eduki horiek lantzeko ardura; batez ere LOGSE legetik aurrera hartu zuten garrantzia eduki horiek, gainera. Zenbait proposamenek konpetentzi hori oinarrizko ikasteko teknikekin parekatu dute. Arrakasta lortzen duten ikasleak apunteak hartzen, etxeko lanak egiten, testu baten ideia nagusiak azpimarratzen, kontzeptu-mapak lantzen eta bestelako trebeziak ikasi dituztenak direla dioen hipotesitik

⁷ Tresna digitalak, IKTak (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) izenarekin ezagutzen zirenak, azken urteotan asko garatu dira, eta gaur egun ikaskuntzarako eta ezagutzarako tresna (IET) bilakatu dira. Horrekin loturik, Informazio-lanketarako gaitasunaren eta gaitasun digitalaren esparru teorikoa ikusi daiteke.

abiatzen dira. Ordea, alor horretan gabeziak dituztenak (ikasteko materialak antolatzen ez dakitenak, informazioa behar bezala erabiltzeko oinarritzko teknikak menderatzen ez dituztenak, etab.) porrot egin ohi dute ikasketetan.

Aurreko ildoa estrategiko deituko dugun beste ildo batek gainditu du. Ildo praktizistaren interes erabilgarria ukatu gabe, ildo estrategikoak azpimarratzen du ikaslea bere ikasle egoeraz, bere aukerez, arrakastez, akatsez edo gabeziez ohartzeak duen garrantzia. Testuinguru horretan, eskolaren zeregina izango litzateke ikasle estrategikoak sustatzea, beren zereginen plangintza egiten dutenak, erabakiak hartzen dituztenak, estrategia eta baliabide egokiak aukeratzen dituztenak, beren zereginak zuzentzen eta berrorientatzen dituztenak, partekatzen dutenak (besteekin elkarlanean aritzen direnak eta behar dutenean laguntza eskatzen dutenak), gaizki egin dutenari buruz galdetzen dutenak eta beste kasuetan aplikatzeko gai direnak. Hortaz, norberaren gaitasun intelektualak identifikatzea, norbere buruaren gaineko konfiantza sendotzea, sormena sustatzea, behatzen irakastea, baita taldean lan egiten edo gertakari baten kausak identifikatzen eta egindako lana ebaluatzen irakastea ere, besteak beste, bigarren ikuspegi horri hurbiltzen zaizkion ekintzak dira, zeinak planteamendu estrategikoa jartzen duen praktizista deiturikoaren gainetik. Laburbilduz, esan genezake ikuspegi estrategikoak praktizista duela barnean, eta hori gainditzen duela.

Kathia Alvaradok, eskola-porrotaren zergatiak aztertzean, eragina izan dezaketen faktoreen konplexutasuna azpimarratzen du, eta alderdi sozialarekin eta kulturekin batera kognitiboak eta afektiboak aipatzen ditu. Arlo akademikoari dagokionez Mazzoni (1999) aipatzen du, honek zera adierazten du, ikasteko erak eskola-arrakastan zerikusia handia duela onartu badaiteke ere, hori ez dela nahikoa⁸. Alvaradoren arabera «*eskola-porrota izan duten ikasleek zailtasun handiagoa dute ikaskuntza-mekanismoak ebaluatzeko eta, batez ere, horiek kontrolatzeko eta horiengan eragiteko. Guk ez dugu pertsonak modu eraginkorrean ikasteko dituen gaitasunez bakarrik hitz egiten, nagusiki pertsonak bere ezagutzari buruz duen ezagueraz hitz egiten dugu, baita ikaskuntza mesedetzen duten estrategiei buruz ere*». Laburbilduz, ikasle bakoitzak bere eskolako egoeraz jabetzeak eta bere ikaskuntza prozesuetan era aktiboan jarduteak duen garrantzia aipatzen duenean, prozesu metakognitiboetan jartzen du arreta. Alvaradok zera azpimarratzen du, ikuspegi horrek ondorio positiboak izango dituela, ez bere ingurune edukatiboan bakarrik, baita familia-ingurunean eta gizarte-ingurunean ere.

Zentzu horretan, zenbait ikerlan mutilen porrota zergatik den neskena baina handiagoa aztertzeraz bideratzen dira, edo zenbait hipotesi egiaztatzeraz, esaterako zergatik neskei mutilei baino zailagoa egiten zaien zenbait eremu edo arlo akademikotan beren gaitasunengan konfiantza izatea, edo zergatik eskatzen dieten gehiago beren buruari.

Komunitate zientifikoan halako adostasuna dago metakognizioan bi osagai antzemateko orduan: Lehenengoa, prozesu kognitiboaren ezagutzan oinarritzen da, horri ikasleak bere ezagutzak nola erlazionatzen dituen erantsi dio Flavellek. Bigarrenak, –A. Brownen lanen emaitzak–, prozesu kognitiboaren arautzearekin du zerikusia.

⁸ MAZZONI, G. (1999): Métaconnaissances et processus de contrôle. In Métacognition et éducation. Berna: Peter Lang. 31-60. Honek aipatuta: Alvarado Calderón, K. (2003) *Los procesos metacognitivos: La metacomprensión y la actividad de lectura*. In *Revista electrónica "Actualidades Investigativas en Educación"*, 3. bolumena, 2. zk. <<http://redalyc.uaemex.mx/pdf/447/44730204.pdf>>

Zentzu horretan Wellmanek zera galdetzen dio bere buruari: *Zer daki ikasleak? eta Zer pentsatzen du prozesu kognitiboari buruz?* (bere buruaren funtzionamenduaren zer irudi dauka?).

Ikusi dezagun zer gertatzen den interakzio-prozesu konplexu batean, esaterako, idatzitakoa ulertzeko prozesuan. Irakurmenaren berariazko trebetasunek eta bestelakoek parte hartzen dute, beste gaitasun kognitiboekin partekatzen direnak. Berezko dituen estruktura kognitibo eta afektiboak, eta dituen ezagutzak eta jarrerak, testua ulertzea eramango duten hainbat prozesu eragingo dituzte.

Prozesu horien artean metakognitiboak daude, ulermenari dagozkionak; horiek metaulermen gisa ezagutzen dira. Giasson-ek (1990)⁹ bi osagai antzematen ditu metaulermenean: prozesuen ezagutza eta prozesu kognitiboen kudeaketa.

Prozesuen ezagutza zera da, ikasle batek ezagutzea zeregin bat –esaterako, irakurtzea– arrakastaz betetzeko dituen trebetasunak, estrategiak eta baliabide kognitiboak, eta baliabide horiek eta bere ikaskuntza-egoeraren arteko bateragarritasuna ezagutzea. Giassonek ezaguera hori hiru ildotan zatitzea proposatzen du:

1. Bere buruaren pertzepzioa, zera da, bere baliabideak, muga kognitiboak, interesak eta motibazioa.
2. Zereginari buruzko ezagutza, exijentzia-maila.
3. Estrategien gaineko ezagutza, zeregina burutzeko eraginkortasunari eta egokitasunari dagokienez.

Ikasleak bere aukera kognitiboen ezjakintasuna eta zereginaren exijentzia-mailaren ebaluazio desegokiak daude eskola-porrot egoera ugariren oinarrian, ikasleak, seguruenik, ez duelako era eraginkorrean jardungo.

Metakognizioaren bigarren osagaia ikasleak autorregulazio-prozesuak erabiltzeko duen trebetasunean datza. Brownen¹⁰ ustez kudeaketa-prozesuan lau alderdi daude:

1. Noiz ulertzen dugun eta noiz ez dugun ulertzen jakitea.
2. Zer ulertzen dugun eta zer ulertzen ez dugun jakitea.
3. Ulertzeko zer behar dugun jakitea.
4. Ulertzen ez dugunean zerbait egin dezakegula jakitea.

Puntu honetan, «*taktika*»ren eta «*estrategia*»ren artean dauden desberdintasunetan jarriko dugu arreta. Taktika plan bat gauzatzeko norberaren teknika litzateke. Estrategia, ordea, jarritako helburura iristeko plan osoa izango litzateke. Trebetasunaren –zerbait egiten jakitea, lehen aipatutako planteamendu praktizista batekin loturiko prozeduren ezaguera– eta strategiaren –zer, zergatik eta noiz egiten jakitea– arteko desberdintasunarekin du harremana, azkenekoa baliabidea edo baliabideen konbinazioa delarik, ikaslearen kontzientzia-egintza baten ondorioa, helburua testua ulertzea eta informazioa gordetzea edo irakurketaren ostean zeregin bat egitea delarik.

⁹ GIASSON, J. (1990): La compréhension en lecture. Editorial De Boeck. Brusela.

¹⁰ Brown, A. (1978). Knowing when, where, and how to remember: a problem of metacognition. In R. Glaser (Ed.). *Advances in instructional psychology*. New Jersey: LEA, 77-165. Honek aipatuta: MORENO HERNÁNDEZ, A. Aprender a aprender. INECSE. Madril.

Hala ere, autoreek bi alderdi garrantzitsuren gainean jartzen dute arreta: hasteko, zera ohartarazten dute, estrategiak ezagutzea eta horiek erabiltzea ez direla gauza bera, eta jarraitzeko, malgutasunaren faktorean jartzen dute arreta, bestela esanda, ikaskuntzaren egoeran zehar estrategiak aldatzeko gaitasunean.

Bestalde, ELLI (The Effective Lifelong Learning Inventory)¹¹ delakoari hurbilduko gataizkio, ikasleen banakako ikaskuntzarako duten gaitasunaren ebaluazioaren eraginkortasuna hobetzeko sortutako tresnari hain zuzen. Tresna horrek ebaluatu nahi dituen zazpi faktorekin lotura duten itemak biltzen ditu:

- **Aldaketa eta ikaskuntza**, ikaslearen ustez ikaskuntza zer mailatan gauzatu daitekeen. Kontrako faktoreari «trabatua egotea eta geldoa izatea» deitzen diote.
- **Jakin-min kritikoa**, ikasten ari denak ezagutzeko duen gogoarekin du zerikusia. Kontrako faktorea «pasibotasuna» da.
- **Zentzua sortzea**, ikasleria zer mailaraino dagoen ikasten duenaren eta dagoeneko badakienaren arteko harremanarekiko adi. Kontrako faktorea «datuak pilatze» hutsa da.
- **Erresistentziarako gaitasuna**, faktore honek zera hartzen du kontuan, ikasleek nola ez duten gogoia erraz galtzen oztopo bat dutenean edo akatsak egiten dituztenean. Kontrako faktorea zailtasunen aurrean «mendekotasuna eta ahulezia» da.
- **Ahalmen sortzailea**, ikasleek gauzak ikuspuntu ezberdinetatik edo era ezberdinetan aztertzekeo duten erraztasunarekin du zerikusia. Kontrako faktoreari «arauen mugen barnean egotea» esaten zaio.
- **Harremana/interdependentzia** (ikaskuntza-harremanak) ikasleek beren ikaskuntzan izaki sozialaren eta izaki pribatuaren arteko oreka kontrolatzeko duten trebetasunarekin du zerikusia. Kontrako faktorea «isolamendua eta mendekotasuna» da.
- **Kontzientzia estrategikoa**, hau ikasleek beren ikaskuntzari balioa emateko azaltzen duten gaitasuna ikusten saiatzen da. Kontrako faktoreari «robotizatuta egotea» esaten zaio.

Atal hau amaitzeko beharrezkoa da esatea eztabaida ez dela amaitu eta *Ikasten ikasteko* kompetenziaren paradigmak irekita jarraitzen duela etorkizuneko ekarpen eta ikerketentzat.

¹¹ DEAKIN CRICK, R.; BROADFOOT, P. & CLAXTON, G. (2004): Developing an Effective Lifelong Learning Inventory: the ELLI Project. *Assessment in Education*, 11. bolumena, 3. zk, 2004ko azaroa, 247-272. or. Y DEAKIN CRICK, R. (2006): Learning how to learn: The dynamic assessment of learning power. The Effective Lifelong Learning Inventory (ELLI) Project, in *Learning to learn network meeting* Report. Ispra (Italia). 54-68. or. <<http://crell.jrc.ec.europa.eu/download/Conferences/L2Lnw1.pdf>>

2.3. Zenbait erronka

Lehen adierazi dugun bezala, XXI. mendeko gizarteak aldaketak izan ditu hainbat alderditan: pertsonen mugikortasuna areagotzen ari da, bai geografikoki bai enpleguari dagokionez, gero eta beharrezkoagoa da bizitzan zehar ikastea eta eguneratuta egotea, gizarteak kulturari dagokionez anitzagoak dira, eta komunikazioaren teknologia etengabe hobetzen eta dibertsifikatzen da, eta horri esker, ezagutza asko hazten da, baita ezagutzarako sarbidea informazioaren teknologia berrien bitartez eta gizarte harremanen eszenatoki berrien bitartez ere.

Eskola ezin daiteke gizartearen errealitatetik kanpo geratu.

Aldaketa sozialak momentu honetan indarra egiten ari dira eskolei erronka eginez. Hainbat erronka planteatzen dituzte, besteak beste, aldaketak irakasteko moduan, ikasketarako guneak antolatzeko moduan, irakasteko eta ikasteko baliabideen egokitzapen eta hobekuntzan (adibidez IKTak) eta oinarriko konpetentzien planteamenduarekin bat datozen ebaluaketa-moduen ezarpenean. Zorionez, eskola asko aurrerapausoak ematen ari dira berrikuntza-eremu horietan eta beste batzuetan.

Ikasten ikasteko konpetentzia sustatzeak alde aurretik alderdi praktiko batzuen gainean hausnarketa egitea gomendatzen du:

- Heziketa-maila bakoitzari (bizitzaren fase bakoitzari, konpetentziaren kontzepzio handiago eta irekiago batetik) dagozkion *Ikasten ikasteko* profil anitzak argi zehaztea.
- konpetentziaren hainbat alderdiren desberdintasun indibidualetan eragiten duten faktoreen gainean hausnarketa egitea.
- konpetentzia horrek jakintzaren eta konpetentzien garapenaren beste eremu batzuekin eratzen duen harremana zehaztea.
- Besteen artean honako alderdi hauek sustatzen dituzten irakaskuntza- eta ikaskuntza-egoerak programatzea:
 - Informazio, gaitasun edo ezaguera berriak bereganatzea.
 - Funtzionaltasuna eta eraginkortasuna hobetzeko informazio, gaitasun edo ezaguera zaharrak aldatzea.
 - Erabilgarri dauden informazioa, trebetasunak edo ezagutzak berregituratzea, ezagutza eta erabileraren eraginkortasuna hobetzeko edo areagotzeko.
 - Erabilgarri dauden informazioa, trebetasunak edo ezagutzak automatizatzea, inguruko eskarira modu eraginkorrean egokitzeko.
 - Ikasleek parte hartzea eta inplikatzeari, eta ikasitakoaz, zailtasunez eta aurreratzeaz, eta abarrez jabetzea.

Bestalde, *Ikasten ikasteko* konpetentziarentzako funtsezko ideia bat aztertu du Elena Martinek, alderdi kognitiboak zein emozionalak garatzeak duen garrantzia, hain zuzen ere. *Ikasten ikasteak* «Gaitasun metakognitibo jakin batzuk bereganatzea

dakar berekin, zera da, ikasleari bere ikasketa-prozesuak ezagutzea eta egokitzea ahalbidetuko dioten gaitasunak. Baina, ikasle moduan bakoitzaren burua ezagutzeak ez du ezertarako balio "ikusten duguna" ez badugu atsegina eta, ondorioz, gai ez garela pentsatzera bagaramatza. Autoestimua, akatsak eragiten duen errefusa onartzeko gaitasuna, ahaleginari eusteak dakarren tentsioa... dira Ikasten Ikastearen izaera emozionala argien erakusten duten dimentsioetako batzuk». Eta jarraitzen du: «Dimentsio bikoitz hori nabarmentzearen helburu nagusia zera da, irakasleok biak landu behar ditugula azpimarratzea. Beraz, ez da zeregin baten plangintza eta garapena estrategikoki egiten laguntzeko baliabide batzuk irakastea, baizik eta ikasleari laguntzea, eskolatzearen hasieratik, bere burua ikasle bezala ezagutzen, onartzen eta hobetzen lagunduko dion prozesu luze horretan»¹².

Alderdi emozionalen garrantziak ez dakar horiek kognitiboen gainetik lehenestea, pertsonaren gaitasunean motibazioa eta konfiantza erabakigarriak direla adierazten badute ere. Elena Martinek berak dioenez ezin daiteke *Ikasten ikastera* irakatsi curriculumaren arloen edukiak alde batera utzita. «*Ikasten ikasteak alor bakoitza behar du garatzeko*», eransten du egileak.

Zentzu horretan, oso garrantzitsua da ikasleak gai dela sentitzea eta horretarako beharrezkoa da proposatzen zaizkion zereginetan arrakasta izatea. Horrek zera esan nahi du, ariketek ikasleen mailaren araberakoak izan behar dutela. Irakasleak proposatzen duen ariketa ikasleak dagoeneko badakienetik gehiegi urruntzen bada –zera da, bere hurbileko garapen-eremutik–, litekeena da ikasleak ariketa egitea ez lortzea, eta ondorioz, ikasteko gai ez dela pentsatzearen zirkuitua errepikatzen da. Arazoa, beraz, ez da bakarrik irakatsi nahi diogun eduki jakin bat ez duela ikasiko, baizik eta ikasle gisa nortasun ez segurua eraikitzen ari dela. Gai hori, jakina den bezala, oso lotuta dago ikasgelako dibertsitatearekiko arretaren garrantziarekin.

Baina, nola irakasten da *Ikasten ikasten*? Elena Martinek haur-hezkuntzatik egin daitekeela –egin behar dela– eta curriculum-arlo eta irakasle guztien erantzukizuna dela azpimarratzen du. Horretarako, garrantzizkoa da zenbait printzipio metodologiko kontuan izatea:

1. Ikasleek eta irakasleek ikaskuntzari buruz duten ikuskera aztertzea. Adimenari buruzko ideiek eragina dute ikasteko prozesuan: Zer pentsatzen dute dela azkarra izatea bi kolektiboek?, adimena ezaugarri finkoa dela ala aldatu daitekeela pentsatzen dute? eta zein uste dute dela gizabanakoen arteko desberdintasunen jatorria?
2. Ikasleei beren ikasteko prozesuak egokitzen erakustea; zera da, plangintza egitea, gainbegiratzea eta edozer zeregin egiteko orduan beren portaera ebaluatzea.
3. Ikasleei beren arrakasten edo porroten zergatia ulertzen erakustea, horiek beren kontrolpean dauden eta aldatu daitezkeen arrazoiekin erlazionatuz. Ikastearen dimentsio emozionalari jaramon egitea dakar.

¹² MARTÍN ORTEGA, E. (2008): Aprender a aprender: clave para el aprendizaje a lo largo de la vida. "Participación Educativa"n, 9. zk (Estatuko Eskola Kontseiluaren aldizkaria), 2008ko azaroa, 72-78. or.

4. Lengoia pentsamendua eraikitzeke funtzioan kokatzea («idazkera epistemikoa» Elena Martinen hitzetan). Garrantzitsua da ikasle batek dituen ideiak eta ezaguerak modu ordenatuan adieraztea –idazketaren bitartez–, ideia horietaz jabetzeko baliabide gisa. Hizkuntza idatziak zehaztasun eta doitasun handigoak eskatzen ditu, beraz, idatzitako testuaren ezaugarriek arrazoitzeari eta ikaskuntzari laguntzeko funtzioa mesedetzen dute. Elena Martinek zera gomendatzen du, irakasle taldeek gai guztietan eta kurso guztietan zehar «*irakurketa eta idazketa pentsakorrak*» (laburpenak, kontzeptu-mapak, testu-iruzkinak, ikasteari buruzko hausnarketak...) egitea adostea.
5. Elkarlana *Ikasten ikastearen* oinarrietako bat da. Besteekin lan egiteak bakoitza bere prozesu kognitibo eta emozionalez jabetzen laguntzen du. Besteekin lan egiteak zera dakar, helburuak zeintzuk izango diren adostea, eta beraz, horiengan pentsatzea; nola aurreratu adostu behar dugu, estrategian eta eman beharreko pausoetan pentsatu; gure akatsak eta besteek antzeman behar ditugu, eta akatsa dela zergatik pentsatzen dugun azaldu; partekatutako irtenbide bat bilatu behar dugu eta hori zergatik den irtenbide zuzena azaldu.
6. Ebaluazio formatzailea konpetentziaren oinarrietako bat da. Ikasleak noiz ikasten duen eta noiz ez, eta ikasten zerk laguntzen dion antzemateko gai izan behar du. Autoebaluazioa eta elkar-ebaluatea ebaluazio formatzailea abian jartzeko prozedura erabilgarriak dira, baina ez dira tresna errazak eta, beraz, trebatu egin behar dira ikasleen gaitasun finkoak izatera iristeko.
7. *Ikasten ikasteak*, aldi berean, ikasketa kudeatzeko beharrezkoak diren balioak eta emozioak garatzea eskatzen du, esaterako, gauzak ikastearekiko eta erronkak gainditzearekiko gustua, ahaleginari balioa ematea, kritika onartzea, beste pertsonekin lan egiteko eta elkarbizitzeko interesa, aurrea hartzeari eta sormenari balioa ematea, eta abar.

Gainera, alderdi kognitiboekin eta afektiboekin batera testuinguruaren eta gizartearen alderdiak ere kontuan hartu behar dira. Azken horiek ikastetxeek hartu beharreko erabakien arloan daude, ikastetxeak baitira ikasleen familia-ingurua eta gizarte-ingurunea ezagutzen dutenak, esaterako, generoaren, jatorriaren, arrazoi sozioekonomikoen eta abarren arabera desberdintasunak.

Testuinguruarekin zerikusia duten alderdi horiek, batzuetan, eragina duten eta ikastetxearekin zerikusirik ez duten faktore gisa ulertzen dira. Baina, horiez gain, ikastetxean bertan oso garrantzitsuak diren zenbait ekintza gertatzen dira ikasketarekin zerikusi estua dutenak baino haratago doazenak, jolas-orduetan, pasilloetan, irteeran..., eta orduan ere nola ikasi ikasten ari dira. Egoera horiek hausnarketarako gai gisa hartzen baditugu, ikasleek gertatu dena zergatik gertatu den aztertzen ikas dezakete, zergatik portatu diren horrela, zer ondorio izan dituen, nola sentitu diren beraiek eta besteak, nola jardun zezaketen hobeago beste une batzuetan... Beraz, ikastetxeei dagokie konpetentzia horren barnean dauden hainbat elementuren arteko loturak zehaztea.

3. Konpetenziaren deskribapena

Orokorrean, Hautamäki eta beste batzuek (2002) *Ikasten ikasteari* buruz emandako azalpena onartzen da¹³. Haren interpretazioaren osagai nagusiak honako hauetan labur daitezke:

- *Ikasten ikastea* zera da, zeregin berriei egokitzeko gaitasuna eta gogoia.
- Konpetenziaren definizioa, zera da, egoera eta zeregin berrietan prozedura orokorrak eta dagoeneko badakiguna aplikatzea.
- Gogoak zenbait motibazio- eta jarrera-azpisisistema adierazten ditu; biak pertsona bakoitzarekin eta testuinguruarekin lotuta.
- *Ikasten ikastea* heziketa-jardunbide egokien bitartez garatzen da.

Azken urteotan erakutsitako interesagatik ere, *Ikasten ikasteko* konpetenziaren ikerketan eta ebaluazioan nazioarteko esperientzia mugatua da oraindik. Hala ere, duen garrantziak komunitate zientifikoak arreta gai horretan jartzea eragin du XXI. mendearen lehenengo hamarkadan. Dokumentu honen hasieran aipatu dugu 2002an Europako Batzordeak sustatutako herrialde europarretako aditu taldea. Haiei jarritako zeregina *Ikasten ikasteko* konpetentzia ebaluatzeko erabili ahalko zen neurketa-tresna bati buruz hausnartzea eta tresna hori sortzeko oinarriak adostea izan zen. Prozesu hori 2008an amaitu zen, ikasten ikasteari buruzko adierazle europar bat sortzeko proba aurre-pilotu batzuk ezarri zirenean.

Proba horiek hiru “*eremu*”¹⁴ zehazten zituen konpetenziaren esparru batean oinarritzen ziren:

- Kognitiboa: Ikasleak proposizioak identifikatzeko, arauak erabiltzeko, arauak eta proposamenak probatzeko eta eguneroko bizitzari buruzko tresna mentalak erabiltzeko gai dira.
- Afektiboa: ikasteko gogoarekin du zerikusia, ikasteko estrategiekin eta aldaketarako orientazioarekin, autokontzeptu akademikoarekin, autoestimuekin eta, azkenik, ikasketa-ingurunearekin.
- Metakognitiboa: ikasleak beren jokabideari buruzko hausnarketa egiteko eta jokabide hori ebaluatzeko gai dira.

¹³ HAUTAMÄKI, J.; ARINEN, P.; ERONEN, S.; HAUTAMÄKI, A.; KUPIAINEN, S.; LINDBLOM, B.; NIEMIVIRTA, M.; PAKASLAHTI, L.; RANTANEN, P. & SCHEININ, P. (2002): *Assessing Learning-to-Learn. A framework*. Evaluation 4. Helsinki. Finlandiako Hezkuntza Ministerio Nazionala.

¹⁴ KUPIAINEN, S.; HAUTAMÄKI, J.; RANTANEN, P. (2008): EU pre-pilot on Learning to Learn. Report on the compiled data. Helsinkiko Unibertsitatea. 103. or. <http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-policy/doc/pilot_survey/report_en.pdf>. Proiektu honetan Espainiak izandako partaidetzari buruzko txostena kontsultatzeko: MORENO, A.; CERCADILLO, L.; MARTÍNEZ, M. (2008): Learn European Project. Pre-Pilot Study National Report. Espainia. Ebaluazio institutua. Hezkuntza Ministerioa. Madril. 39. or.

EAEko curriculumak –aipatutako oinarrizko konpetentzien garapenarekin zerikusia duen Dekretuaren III. eranskinaren hasieran– sei heziketa-konpetentzia orokor zehazten ditu, baita horien izaera integratzailea eta meta-konpetentziala ere.

1. Erantzukizunez eta izaki autonomo gisa bizitzen ikastea.
2. Ikasten eta pentsatzen ikastea.
3. Hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikatzen ikastea.
4. Elkarrekin bizitzen ikastea.
5. Pertsona gisa garatzen ikastea.
6. Egiten eta gauzei ekiten ikastea.

Lehenik, atentzioa ematen du guztiak «*ikastea*» hitzarekin amaitzen direla, *Ikasten ikastea* espresioaren antzera.

Bigarrenik, bigarren konpetentzia orokorra nabarmendu nahi dugu (ikasten eta pentsatzen ikastea), honek argi aurreratzen baitu hemen jorratu dugun konpetentziaren zeharkako izaera. Honela azaltzen da Dekretuan:

«2.– Ikasten eta pentsatzen ikastea, informazioa interpretatzen, sortzen eta ebaluatzen ikasita, erabakiak hartzen eta problemak ebazten, ikasteko eta lana egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak ikasita, ezagutzaren eta esperientziaren hainbat arlotan problemak ebazteko ezaguera zientifikoaren eta matematikoaren metodoak erabiltzen ikasita».

Azkenik, beste konpetentzien erreferentzia implizituak (informazioa lantzea eta sortzea, ezaguera zientifikoa eta matematikoa erabiltzea, problemak ebaztea...).

Euskal curriculumak horrela aurkezten du *Ikasten ikasteko* konpetentzia¹⁵:

» *Ikasleak jakin egin behar du zer dakien, zer ikasi behar duen, nola ikasten den, eta nola kudeatzen eta kontrolatzen diren modu eraginkorrean ikaskuntza-prozesuak, haien optimizatuta eta helburu pertsonalak asetzerara bideratuta. Ikasleek jakin egin behar dute zer ahalmen eta gabezia dituzten, eta lehenei etekina ateratzen jakin behar dute; halaber, bigarrenak gainditzeko motibazioa eta borondatea izan behar dute, eta helburu hori lortzeko aurreikuspena. Hala, ikasleak gero eta segurtasun handiagoa izan behar du bere buruan, ikasketa-erroka berriei ekiteko.*

» *Bi alderdi horiek lantzeko, ikasleak jakin egin behar du zer ahalmen izan behar dituen gauzak ikasteko; besteak beste, arreta, kontzentrazioa, memoria, hizkuntza ulertzeko eta adierazteko ahalmena, eta helburuak lortzeko motibazioa. Horiek horrela, ikasleak ahalik eta etekin handiena eta pertsonalizatuena atera behar die ahalmen horiei, askotariko estrategiez eta teknikez baliatuta. Teknika eta estrategia horien artean hauek ditugu: ikastekoak; gertakariak eta harremanak sistematikoki behatzekoak eta erregistratzekoak; lankidetzakoak eta proiektuen bidezkoak; arazoak konpontzekoak; jarduerak eta denbora modu efektiboan planifikatzeko eta antolatzeak. Halaber, bere ahalmenei etekina ateratzeko, informazioa lortu,*

¹⁵ EHAA, 218. zk. (2007-11-13): Gehigarria. III. eranskinaren 15-16. or.

aukeratu eta tratatzeko baliabideak (teknologikoak barne) eta iturriak baliatu behar ditu ikasleak.

» Konpetentziak eskatzen du nork bere buruari galderak egiteko jakin-mina izatea, eta egoera edo arazoei konponbidea emateko dauden aukerak identifikatzea eta baliatzea, eta, espezifikoki, eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, askotariko estrategiak eta metodoak erabiltzea erabakiak modu arrazionallean eta ikuspegi kritiko hartzeko.

» Konpetentzia eskuratuta, halaber, informazioa banaka edo elkarlanean lortzeko trebetasuna izan behar du ikasleak, eta, bereziki, informazio hori norberarentzako jakintza bihurtzeko trebetasuna. Hala, ikasleak elkarlotu eta osatu egin behar du eskuratutako informazio berria, bai aurrez duen informazioarekin, bai bere bizipen pertsonalekin; eta jakin egin behar du jakintza eta gaitasun berriak antzekotasunak dituzten egoeretan eta askotariko testuingurutan aplikatzen.

» Konpetentzia hori eskuratzeko, epe labur, ertain eta luzeko helburuak jarri eta horiek bete behar dira, eta pixkanaka eta ikuspegi errealista batetik handitu ikaskuntza-helburuak.

» Ikasteko irmotasuna izatea eskatzen du konpetentzia honek, eta ezaugarri hori norberaren bizitza eta bizitza soziala aberasten duen elementutzat jo behar du ikasleak. Ondorioz, ikasteko esfortzuak merezi duela pentsatu behar du ikasleak. Bere burua ebaluatzeko eta erregulatzeko gaitasuna izan behar du ikasleak, erantzukizun eta konpromiso pertsonala izan, esfortzua administratzen jakin, eta akatsak onartu behar ditu, eta gainerako pertsonengandik eta pertsonekin ikasten jakin behar du.

» Laburbilduz, ikasleak ikasten ikas dezan, bere gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzekoa; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-espereientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean.

4. Ikasten ikasteko kompetenziaren dimentsioak

Ikasten ikasteko kompetentzia bi multzo edo **dimentsio** handitan egituratzen da. Dimentsio horietako bakoitzak **azpi-kompetentzia** sail bat biltzen du, eta azpi-kompetentzia horietako bakoitzarentzat **ebaluazio-adierazle** batzuk ezartzen dira. Azken horiek dira ikasleek garatzen jakin behar duten zeregin edo eragiketa zehatzak, kompetentzia hori menderatzen dutela erakusteko. Adierazle horiek argi erakusten dute ikasleak jakin behar duena eta egiten jakin behar duena, baita jarrera pertsonal jakin batzuk ere.

Ikasten ikasteko kompetenziaren dimentsioak honako hauek dira:

- **Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.**
- **Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.**

Dimentsio bakoitzari buruz hura argitzen eta adibide bitartez azaltzen duten ezaugarri batzuk aurkezten dira.

Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagueren kontzientzia

Dimentsio honek, lehenik, ikaskuntzan eragina duten eta hura baldintzatzen duten faktoreak antzemateko ikasleak duen gaitasunarekin zerikusia duten alderdiak biltzen ditu: alde batetik, gaitasun intelektualak, afektibo-emozionalak eta fisiko-motoreak; bestetik, ingurunearen eragina, bai familiarena bai eskolakoa; eta gainera, zereginaren helburua lortzeko beharrezko estrategiak garatu izanaren kontzientzia.

Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

Kudeaketa kontzientea ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuaren meta-ulermenarekin eta erabakiak hartzearekin lotua dago. Horrela, dimentsio horrek, alde batetik, zeregin bat garatzeko faseak zehazten ditu, plangintza eta erabakiak hartzetik, helburuaren, denboren identifikazioaren, baliabideen eta erabiliko dituen prozeduren arabera, banaka edo taldeka. Bestalde, zeregin hori arautzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzen da. Laburbilduz, ikasteko prozesuaren kudeaketa praktikoarekin du zerikusia, helburua hasieratik zehazten denetik, zailtasunen eta akatsen kudeaketatik pasata, prozesuan zehar erabakiak adosten diren arte. Azkenik, dimentsioak garrantzia ematen dio ikasitakoa antzemateari eta eskolako eta bizitza pertsonaleko beste testuinguru batzuetan erabiltzeko aukerari. Eta, zentzu horretan, erabilgarrien izan diren ekintzak eta ikasteko erak identifikatzea. Horrek agerian jartzen du azken fase honetan zer eta nola ikasi den aztertzen duen gogoeta egiten dela.

Jarrian, dimentsio bakoitza azpi-konpetentzietan xehatzen da, honako taulan

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia

1. Gaitasun eta muga intelektualak ezagutzea.
2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.
3. Gaitasun fisikoak eta mugimen-trebetasunak identifikatzea.
4. Ikaskuntza estimulatzen duten inguruneko baldintzak identifikatzea.
5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda

6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.

4.1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako azpi-konpetentzien adierazleak eta mailaketa.

Hasierako mailan zenbait gertaera eta datu zehatz eta zenbait eduki erraz buruz ikasteko eta ahozko instrukzioei jaramon egiteko eta betetzeko gaitasunaz jabetzen diren ikasleak daude. Ikastea «azkarra» izatearen emaitza gisa ulertzen du eta izaera baikorra agertzen du gehien motibatzen duten ikaskuntzekiko. Eskolako lanak egitea zaila dela nabaritzen du eta, orokorrean, kanpoko estimulu asko behar ditu lana egiten hasteko. Zereginak egiten jarraitzeko askotan laguntza eskatzen du, eta lana bertan behera uzteko erraztasuna du. Aldi berean, pentsa dezake eskolako lanetarako kanpoko laguntza gutxi duela, batez ere familia-ingurunetik.

Badaki zeintzuk diren ikasten laguntzen duten ingurune-egoerak, baina ez du ahaleginik egiten egoera hori izateko (adibidez, soinurik ez egotea, argi egokia izatea, entretenigarrik ez izatea...); agenda noizbehinka erabiltzen du, batzuetan eskolako lanekin zerikusirik ez duten helburuetarako. Bere koaderno eta lanetan ordenak eta txukuntasunak duten garrantziaz jabetzen da. Taldeko lanetan aldizka egiten ditu ekarpenak, ziurtasun-gabezia erakusten du eta taldekideen erabakiak jarraitzen ditu.

Banaka edo taldeka egin beharreko zereginak egiten ditu, baina horiek amaitzeko zenbat denbora beharko duen baloratu gabe hasten ditu; kanpoko laguntzarekin ikasteko zenbait teknika erabiltzen ditu, eta horiek sistematizatzea zaila egiten zaio; objektuak manipulatzeko dituzten marrazkiak egiten ditu, tresnak erabiltzen ditu... horretarako trebetasun egokienak zeintzuk diren pentsatu gabe eta informazio-iturrietara iristeko laguntza behar izaten du. Antolatzea kostatu egiten zaio, eta zereginetan ordena jarraitzen du, eredu bat edota jarraibideak ematen zaizkionean.

Irakurtzeko orduan testu errazak ulertzeko duen gaitasunaz jabetzen da, eta ulertzen ez duenean laguntza eskatzen du; zaila egiten zaio testua ulertzea eragozten dioten elementuak antzematea, baita ikasitakoa zer egoeratan erabili identifikatzea ere. Zereginari ekiten dio akatsetan arreta jarri gabe. Ikasitakoaren gainean hausnarketa egitea eskatzen bazaio, alderdi zehatzak deskribatzen ditu eta adibideak aipatzen ditu, batez ere kontzeptu edo ideia eta teknika errazak. Bere ikasketa-prozesuan hobetu beharreko alderdiak daudela badaki, eta irakasleek edo eskola-kideek adierazitako hobetzeko aukerak onartzen ditu eta akatsen bat zuzentzen du. Zeregin batean zailtasunak topatzen dituenean, laguntzarik gabe aurrera egiteko estrategiak bilatzea kostatu egiten zaio.

Erdi-mailan hasierako mailan adierazitako gaitasunez gain bestelako gaitasunak dituzten ikasleak daude: gero eta zailagoak diren edukiak ikasteko eta asimilatzekeko gai direla badakite, eta ahozko eta idatzizko instrukzioei jaramon egiteko gai direla, eta horiek betetzen kontzentratzen dira. Interesgarriak iruditzen zaizkion zenbait gai buruzko zalantzak azaltzeko, galderak egiteko eta laguntza eskatzeko gai dela sentitzen du. Ikaskuntza gaitasun intelektual batzuen emaitza gisa ulertzen du, baina ikasteko bakoitzaren ahaleginak duen garrantziaz ohartzen da, eta arlo ezberdinetako ikaskuntzenganako izaera baikorra agertzen du. Menderatzen dituen ikaskuntzetan segurtasuna erakusten du. Ahalegina neurtzen badaki, nekearen aurrean ez du gogo galtzen eta zeregina amaitzen du. Bere lanetan eta koadernoetan txukuntasunak eta garbitasunak duen garrantziari balioa ematen dio. Familiako inguruneak eta lagunek hein batean laguntzen diotela sentitzen du. Taldeka edo binaka egin beharreko lanetan jarrera aktiboa eta elkarlanekoa agertzen du, bai neskekin, bai mutilekin. Agenda erabiltzen badaki eta gogorarazten bazaio, eskolako lanetarako erabiltzen du.

Ikaskuntza-prozesuan gertu dituen informazio-iturriak eskuratzeko gai dela sentitzen du, horiek antolatzea, informazio sinpleak kontsultatzea eta horien sailkapena egitea eta bere ariketetan erabiltzea, testu errazak laburtzea eta testu baten ideiak nagusiak antzemateko hitz-gakoak aurkitzea kostatu egiten bazaio ere. Normalean gauzak ulertuta irakurtzen du, eta, zerbait ulertzen ez badu, laguntza eskatzen du. Sistematizatuta dituen zereginekin bat datozen ikasteko zenbait teknika era egokian erabiltzen ditu. Akatsak bilatzen eta emaitzak egiaztatzen arreta jartzen du, horiek zuzentzeko, baina egiaztatze- eta berrikuste-momentuen plangintza ez du alde aurretik egiten. Orokorrean, marrazteko eta eskuzko baliabideak erabiltzeko beharrezkoak diren trebetasunez ohartzen da, baina ez ditu beti era egokienean erabiltzen.

Zeregin bat egiterakoan, bai banaka, bai taldeka, jarraibideak behar ditu zereginak eta ariketak planifikatzeko eta egiterako orduan bere helburuetatik ez urruntzeko. Zereginetan ordena eta arauak jarraitzearen garrantzia ulertzen du,

baina hori ez du sistematizatzen. Zeregin bat egiterakoan zailtasunak antzematen ditu eta ezagutzen dituen beste estrategia batzuekin gainditzen saiatzen da.

Maila aurreratuan aurreko bi mailetan adierazitako gaitasunez gain, gauzak ikasteko askotariko estrategiak erabiltzeko gai direla eta arlo guztietako edukiak bereganatzeko gai direla dakiten ikasleak daude. Ikasleak ezagutzen du hainbat zeregin hainbat testuingurutan betetzeko duen kontzentrazio-gaitasuna. Interes handia erakusten du eskolako gaien aurrean, eta bere ekintzetan informazioa handitzeko edo sakontzeko gogoia izaten du, ikastea atsegin baitu. Orokorrean, segurtasuna sentitzen du eskolako zereginak egiterakoan, eta erronkak gustuko ditu, eta zailtasunak izan arren, ahaleginak egiten ditu eskolan aurrerapenak egiteko. Bere lanetan eta koadernoetan txukuntasunak eta garbitasunak duen garrantziari balioa ematen dio, ikasketetan hobetzeko baldintza gisa ikusten baititu. Eskolako arrakastak eta porrotak antzematen ditu eta hainbat zergatiren ondorio direla ulertzen du eta zailtasunen aurrean irtenbidea aurkitzen du. Zeregin bakoitzerako beharrezkoa den ahalegina erabiltzen du, ekina da, ez du gogoia galtzen eta nekea konpentsatzen duten bestelako estimuluak aurkitzen ditu. Ingurune egokian ikasten saiatzen da horrek duen garrantziaz jabetzen baita. Ikasterako orduan familiako inguruaren eta lagunartean laguntza sentitzen du eta horrek eskolako emaitzetan duen garrantziaz ohartzen da. Agenda erabiltzen du eskolako lanen epe laburrerako eta epe ertainerako plangintza egiteko eta horiek gauzatzeko.

Taldeko edo binakako lanetan agintea hartu dezake eta proposamenak egin..., taldeko lanari ikasteko eta irakasteko tresna gisa balioa emanez. Bere eskola-kide batzuen zailtasunak ulertzen ditu eta beren ikasketa prozesuetan laguntzen die.

Ikasketa prozesuari dagokionez, ulermenez irakurtzen du, ulertzen ez duenaz konturatzen da eta aurreratzeko estrategiak garatu ditu. Bere mailarekin bat datozen hainbat ikasketa-teknika ezagutzen ditu (laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak) eta zeregin bakoitza egiteko egokiena aukeratu eta modu eraginkorrean erabiltzen du. Zenbait testuren iruzkin kritikoa egiteko edo ideia berriak ekartzeko gai ikusten du bere burua. Orokorrean, ikasi duena adierazteko gai da eta ikasitakoa beste testuinguru batzuetan edo eguneroko bizitzan erabiltzen du, generoen rola gaindituta. Bere lanetan akatsak antzematen eta zuzentzen ditu. Ikasteko erronka berriak jartzen dizkio bere buruari eta horiek lortzeko neurri batzuk hartzen ditu.

Zeregin bat banaka edo taldeka egitearekin lotuta, hori egiteak zertarako balio duen ulertzen du eta ez da bere helburuetatik urruntzen, ongi antolatzen da eta epeak betetzen ditu; halaber, adierazitako helburuarekin ez datorrela guztiz bat antzematen duenean, beharrezkoak diren aldaketak sartzeko gai da. Zailtasunaren arabera orden bat jarraitzen du bere zereginetan eta emandako arauak erabiltzen ditu sistematikoki. Zeregin bakoitzarentzako informazio-iturri egokienak aukeratzen ditu eta baliabideak zertarako eta nola erabili behar direnaren arabera aukeratzen ditu. Fase ezberdinak dituen ariketa baten aurrean horiek nola banatu badaki eta ongi antolatzen du bere burua. Zeregin bat egiterakoan zailtasunak antzematen ditu eta sormenezko irtenbideak proposatzen ditu.

1. Dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueraren kontzientzia.

1. Gaitasun eta muga intelektualen ezaguera.

- Bere arreta eta kontzentrazio mailaz ohartzen da.
- Bere memoria nolakoa den jabetzen da.
- Duen hizkuntzaren ulermen eta adierazpen maila ezagutzen du.
- Ezagutzen du zenbateko hausnarketa kritikoa eta sormenezkoa egin ditzakeen.
- Egiten duen ahaleginaren eta lortzen duen emaitzaren arteko harremanaz ohartzen da.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko aginduei jaramon egiteko gai dela daki eta horiek betetzen saiatzen da. - Zenbait jardueratan ekintza zehatzak (asmakizunak, olerkiak) eta zenbait eduki erraz gogoratzeko gai dela daki. - Testu errazak ulertzeko gaitasunaz ohartzen da eta badaki laguntza noiz eskatu behar zuen zerbait ulertzen ez duenean. - Ikaskuntza «azkarra» izatearen emaitza dela uste du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta idatzizko aginduei etengabe jaramon egiteko gai dela daki eta horiek betetzen saiatzen da. - Gero eta zailagoak diren ikasketa-edukiak gogoratzeko eta ulertzeko gai dela daki. - Testu batean hitz gakoak aurkitzeko, informazio sinplea sailkatzeko eta testu errazak laburtzeko gai ikusten du bere burua. - Laguntzarekin, zenbait testuren iruzkin kritikoa egiteko edo ideia berriak ekartzeko gai ikusten du bere burua. - Ikaskuntza gaitasun intelektual batzuen emaitza gisa ulertzen du, baina ikasteko bakoitzaren ahaleginak duen garrantziaz ohartzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait zereginetan eta testuinguru ezberdinetan kontzentratzeko duen gaitasunaz ohartzen da eta entrenigarriak saihesten ditu. - Memorizazio-estrategia ezberdinak erabiltzeko gai dela daki eta badaki noiz eta nola erabili arlo ezberdinetan. - Hiztegia erabiltzen du zerbait ulertzen ez duenean eta laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak egiten ditu ikasitakoa asimilatzeke eta gogoratzeko. - Zenbait testuren iruzkin kritikoa egiteko edo ideia berriak ekartzeko gai ikusten du bere burua. - Zailtasunak izan arren, bakoitzaren ahaleginak eskolan aurrera egiteko duen garrantziaz ohartzen da.

2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.

- Jarrera positiboek ikasten laguntzen diotela jabetzen da: motibazioa, ikasteko nahia, hobetzeko interesa, pertseberantzia, arrakasta izateko aukerak...
- Bere buruarengan konfiantza garatzen du.
- Badaki zer ezaugarri diren lagungarriak talde-lanerako (lidergoa, enpatia, elkarlanerako ahalegina, hartu-eman, etab.) eta berak lana taldean egiteko duen gaitasunaz jabetzen da.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Gehien motibatzen duten ikasketetarako jarrera baikorra agertzen du. - Eskolako lanak egitea zaila dela sentitzen du. - Kanpoko estimulu asko behar ditu lanean asteko eta horiek gabe gogoia erraz galtzen du. - Maiz laguntza eskatzen du zereginak egiten jarraitzeko eta erronken aurrean gogoia galtzen du. - Kideekin elkarlanean aritzea gustuko du eta taldeko lanetan noizbehinka ekarpenak egiten ditu baina norbaitek gidatzea behar du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait arlotako ikasketetarako jarrera baikorra agertzen du. - Eskolako lana erronka gisa ikusten du eta erronka horri aurre egiten dio sariagatik edo aintzatespenagatik. - Batzuetan zereginen bat egiteko bultzatu behar zaio baina segurtasun gehien duen ariketak amaitzeko ahaleginak egiten ditu. - Menderatzen dituen ikaskuntzetan segurtasuna agertzen du. - Taldeka edo binaka egin beharreko lanetan jarrera aktiboa eta elkarlanekoa agertzen du, bai neskekin eta bai mutilekin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolako gai guztiekiko interes handia agertzen du eta informazio osagarria bilatzen du ikastea atsegin duelako. - Zeregin zailenak egiteko gogoia izaten du. - Eskolako arrakastak eta porrotak hainbat zergatiren ondorio direla ulertzen du eta horien irtenbidea bilatzen du. - Zereginak pazientziarekin, diziplinarekin eta erantzukizunarekin egiten ditu. - Orokorrean eskolako ikaskuntzekin seguru sentitzen da eta erronkak gustuko ditu. - Lana antolatzen badaki taldeko edo binakako lanak egiterako orduan, bai neskekin eta bai mutilekin. - Bere taldekideen zailtasunak ulertzen ditu eta ikaskuntza-prozesuetan laguntzen die, neskak ala mutilak diren berdin zaiolarik.

3. Gaitasun fisiko-motoreak eta sentsorialak identifikatzea.

- a) Eskolako lanetan zenbait gaitasun fisiko eta sentsorialekin duten garrantziaz jabetzen da: adibidez, buru-lanerako erresistentzia fisikoa, ikusmena, entzumena, oreka, etab.
- b) Bere mugimen-trebeziak ezagutzen ditu eta zailtasunak orekatzen badaki.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Eskolako lanez azkar nekatzen dela ohartzen da eta zereginak bertan bera uzten ditu. - Batzuetan bere gaitasun fisiko edota zentzumenerako gaitasunetatik urruntzen diren zereginak egitea proposatzen dio bere buruari. - Objektuak manipulatu ditu, marrazkiak egiten ditu, tresnak erabiltzen ditu... horretarako trebetasun egokiak zeintzuk diren pentsatu gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahalegina neurtzen badaki, nekearen aurrean ez du gogoia galtzen eta zeregina amaitzen du. - Normalean bere gaitasun fisiko eta sentsorialekin bat datozen helburuak jartzen dizkio bere buruari. - Orokorrean, marrazteko eta eskuzko baliabideak erabiltzeko beharrezkoak diren trebetasunak ohartzen da, baina ez ditu beti era egokienean erabiltzen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin bakoitzerako beharrezkoa den ahalegina erabiltzen du eta nekea konpentsatzen duten bestelako estimuluak aurkitzen ditu. - Ahalegina neurtzen daki eta zereginak bere gaitasun fisiko eta sentsorialen arabera hartzen eta garatzen ditu. - Zenbait zeregin egiterakoan mugimen-trebetasunen eraginari balioa ematen dio eta bere gaitasunak ahalik eta hoberekin erabiltzen saiatzen da.

4. Ikaskuntza estimulatzen duten ingurune-baldintzak identifikatzea.

- Ikaskuntzan lagungarri diren ingurune-faktoreak ezagutzen ditu (soinurik ez egotea, argi ona izatea, harreman ona izatea taldekideekin...) eta badaki oztopoak nola gainditu behar diren.
- Ikaskuntzan lagungarri diren elementu materialak ezagutzen ditu (altzari egokiak, garbitasuna, txukuntasuna...) eta badaki oztopoak nola gainditu.
- Bere ingurunekoen itxaropenak (familia, eskola, lagunak,...) bere ikaskuntza nola estimulatzen duen antzematen du.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratu
<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntzan lagungarri diren zenbait ingurune-egoera antzematen ditu baina ez da horiek izateaz arduratzen (adibidez, soinurik ez egotea, argi egokia, entretenimendurik ez egotea). - Bere koadernoetan eta lanetan txukuna izateak duen garrantzia ezagutzen du, baina ez du beti aplikatzen. - Eskolako lanetan kanpoko laguntza gutxi duela sentitzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zereginak egiteko ingurune baldintza egokienak zeintzuk diren badaki eta, horietako batzuk zuzenak ez direnean, zuzendu egiten ditu. - Erabiltzen dituen tresnak eta baliabideak jasotzen eta zaintzen ditu. - Familiako inguruneak eta lagunak hein batean laguntzen diotela sentitzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune egoki batek duen garrantzia ohartzen da eta hori errespetatzen saiatzen da. - Erabiltzen dituen tresnak eta baliabideak zaintzeak ikaskuntzan hobetzeko baldintza gisa duen garrantzia ohartzen da. - Ikasterako orduan familia-inguruaren eta lagunartean laguntza duela onartzen du eta horrek bere eskolako emaitzetan duen garrantzia ohartzen da.

5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.

- Zeregin bakoitza egiteko teknika egokiena zein den badaki.
- Informazio-iturrien erabilerako trebetasun-maila ezagutzen du (informazioa eskuratzea, antolatzea, hautatzea eta jakinaraztea).
- Zereginen denborak eta faseak antolatzearen garrantzia ikusten du.
- Eskolarako agenda erabiltzearen baliagarritasunaz jabetzen da.
- Elkarlanaren garrantzia onartzen du ikasteko eta irakasteko estrategia gisa.
- Zereginak egiteko duen trebetasunaz jabetzen da.
- Zeregin bakoitzean jarraitu beharreko arauak ezagutzen dituen ala ez badaki.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Kanpoko laguntzarekin zenbait ikasketa-teknika erabiltzeko gai ikusten du bere burua baina teknika horiek sistematizatzea kosta egiten zaio. - Kontsultak egiteko edo lanak egiteko informazio-iturrietara heltzeko laguntza behar duela daki. - Zereginak egiten hasten da zenbat denbora beharko duen pentsatu gabe eta askotan inprobisatu egiten du. - Eskolako agendaren zenbait erabilera ezagutzen ditu. - Talde-lanetan segurtasun falta agertzen du. - Eskolako lanetan ordena jarraitzea kosta egiten zaio. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sistematizatuta dituen zereginekin bat datozen ikasteko zenbait teknika era egokian erabiltzeko gai ikusten du bere burua. - Informaziora heltzeko zenbait iturri ezagutzen ditu eta kontsultatu ditzakeela daki, baina horiek era eraginkorren antolatzea eta erabiltzea kosta egiten zaio. - Zereginak eta ariketak planifikatzeko eta egiterako orduan jarraibideak behar ditu bere helburuetatik ez urruntzeko. - Agenda erabiltzen badaki eta, gogorarazten bazaio, eskolako lanetarako erabiltzen du. - Seguruago ikusten du bere burua bakarka lan egiten duenean, talde-lanetan aritzen denean baino. - Zereginetan ordena bat eta arau batzuk jarraitzearen garrantzia ulertzen du, baina ez du sistematizatzen jarrera hori. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bere mailan landutako ikasteko teknikak erabiltzeko eta, bere kabuz, zeregin bakoitza egiteko egokiena dena aukeratzeko gai ikusten du bere burua. - Zeregin bakoitzerako informazio-iturri egokienak aukeratzeko eta lortzen duen informazioa bere helburuaren arabera erabiltzeko gai dela daki. - Eskolako lanak egiterakoan ongi antolatzen da eta epeak betetzen ditu. - Eskolako agendaren erabilera ezagutzen du epe laburrean eta epe ertainean bere zereginak planifikatzeko eta egiteko. - Ikaskuntza-prozesuan, neskekin nahiz mutilekin egiten den elkarlanak dituen abantailak ikusten ditu. - Zailtasunaren arabera ordena jarraitzen du bere zereginetan eta emandako arauak erabiltzen ditu sistematikoki. Zereginak ordenan egiten ditu eta, ezaugarrien arabera, horiek nola egin badaki.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea) eta erabakiak hartzea eta gauzatzea.

- a) Zereginaren helburua zehazten du.
- b) Proposatutako helburuarekin bat datozen ekintzak erabakitzen ditu.
- c) Faseak denboran zehar ordenatzen ditu, epe laburrean, ertainean eta luzean.
- d) Prozedurak eta baliabideak identifikatzen eta hautatzen ditu.
- e) Zereginak zehaztasunez, txukun, xehetasunez eta kreatibitatez egiten ditu.
- f) Zereginak zailtasun- eta berritasun-mailaren arabera desberdintzen eta sailkatzen ditu.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>- Zereginak bakarka edo taldeka egiten ditu, agindu zaizkiolako, ez du plangintza pertsonalki egiten.</p> <p>- Ariketen garapenean zehaztutako plana jarraitzen saiatzen da eta ez da urruntzen.</p> <p>- Ariketak aurreikusitako helburuarekin lotzeko laguntza behar izaten du edo besteek egindako proposamenak jarraitzen ditu.</p> <p>- Fase ezberdinak dituen ariketa batean zailtasunak izaten ditu fase horiek ordenan jartzeko.</p> <p>- Zeregin bat egiterakoan dagoeneko ezagutzen dituen oinarritzko prozedurak eta badituen baliabideak erabiltzen ditu.</p> <p>- Zenbait zeregin zailtasunaren mailaren arabera ezagutzen ditu.</p>	<p>- Agintzen zaizkion zereginak egiten ditu, bakarka ala taldeka, eta badaki zertarako diren baliagarri.</p> <p>- Zeregin baten plana ordenan aplikatzen du eta lanean zehar erabaki batzuk birplanteatzen ditu.</p> <p>- Ekintzak denboran planifikatzen eta antolatzen ditu baina ez da epeetara, baliabideetara edo bere aukeretara egokitzen.</p> <p>- Fase ezberdinak dituen ariketa bat egitean antolatzen saiatzen da edo laguntza eskatzen du.</p> <p>- Ezagutzen dituenen artean prozedura egokia aukeratzen du baina ez daki hori beti ongi erabiltzen eta ez dituen baliabideak bilatzen ditu.</p> <p>- Zailtasunaren arabera zein zeregin egin ditzakeen badaki, bere gaitasunetara egokituz.</p>	<p>- Zeregin bat amaitzean lortuko duena aurreikusten du eta lehenago egindako ariketa batzuekin duen harremana ikusteko gai da.</p> <p>- Zeregin baten ekintzen garapena azken helburuaren arabera egokitzen du.</p> <p>- Ariketak plangintzaren arabera egiten ditu eta beharrezko aldaketak sartzen ditu aurreikusitako helburuarekin bat ez datozela ikusten duenean.</p> <p>- Fase ezberdinak dituen ariketa baten aurrean horiek nola banatu badaki eta ongi antolatzen du bere burua.</p> <p>- Ezagutzen dituenen artean prozedura egokia aukeratzen du eta hori ongi erabiltzen du eta baliabideak helburuaren arabera eta horiek nola erabiltzen direnaren arabera aukeratzen ditu.</p> <p>- Zeregin batean arrakasta izango duen ala ez aurreikusten du zailtasun-mailaren arabera.</p>

7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.

- Irakurtzen duen arabera doitzen du testuak ulertzeko prozesua (metaulermena).
- Eraitza partzialak eta zailtasunak egiaztatzen ditu eta prozesuan zehar akatsak kudeatzen ditu.
- Ordezko eta sormenezko irtenbideak ekartzen ditu eta hasierako erabakiak doitzen ditu.
- Lorpenak antzematen ditu eta badaki nola ikasi duen.
- Hobetu beharreko alderdiak antzematen ditu eta erronka berriak proposatzen dizkio bere buruari.
- Ikasitakoa erabiltzeko egoera berriak identifikatzen ditu.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Testu errazetan oinarrizko informazioa ulertzen du. - Zeregin batzuk burutzerakoan zailtasun batzuk ikusten ditu eta akatsen bat zuzentzen du, normalean laguntzarekin. - Zeregin batean zailtasunak topatzen ditu, baina laguntzarik gabe aurrera egiteko estrategiak bilatzea kostatzen egiten zaio. - Ikasitako alderdi zehatzak antzematen ditu, batez ere kontzeptu edo ideia eta teknika errazak. - Irakasleen edo bere kideen eraginez hobetzeko aukerak onartzen ditu. - Ikasitakoa erabiltzeko egoera berriak identifikatzea kostatzen egiten zaio. - Bere ikaskuntza egunera bizi du, bere gabeziak nola gainditu edo ondo egiten duena nola hobetu dezakeen pentsatu gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> - Normalean irakurtzen duena ulertzen du, testuen edukiak egia izateari balioa ematen dio, informazio adierazgarria aurkitzen du eta laguntza eskatzen du zerbait ulertzen ez badu. - Akatsak bilatzean eta emaitzak egiaztatzean arreta jartzen du horiek zuzentzeko baina egiaztatzeko eta berrikusteko momentuen plangintza ez du aldeztu aurretik egiten. - Zeregin bat egiterakoan zailtasunak antzematen ditu eta horiek ezagutzen dituen beste estrategia batzuekin gainditzen saiatzen da. - Ikasketa-egoerarekin loturiko zenbait estrategia eta ikasitako teknikak deskribatzen ditu. - Hobetu ditzakeen alderdiak antzematen ditu eta hori lortzen lagundu diezaioketen baliabideak ezagutzen ditu. - Ikasitakoa erabiltzeko aukerak ikusi ohi ditu egoera edo zeregin berrien aurrean. - Ikasteko helburu berriak identifikatzen ditu eta horien garrantziari balioa ematen dio. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurtzen duena ulertzen du, ideia nagusiak eta kontraesanak antzematen ditu eta ariketak egiteko informazioa aurkitzen du. - Emaitza partzialak egiaztatzeko momentuak aurreikusten ditu, bere lanetan akatsak aurkitzen ditu eta bere lanak zuzentzen ditu. - Zeregin bat egiterakoan zailtasunak antzematen ditu eta sormenezko irtenbide proposatzen ditu. - Ikasitakoa, orokorrean, ikasketa-testuinguruarekin eta ikasitako erarekin erlazionatuz azaltzen du. - Bere ikasketa-prozesuan hobetu beharreko alderdiez jabetzen da eta hori lortzeko zenbait baliabide identifikatzen ditu. - Ikasitakoa beste testuinguru batzuetan edo eguneroko bizitzan erabiltzen du, bai eta eremu pribatuan ere. - Ikasteko erronka berriak jartzen dizkio bere buruari eta horiek lortzeko neurri batzuk hartzen ditu.

4.2. DBHko 2. mailako azpi-konpetentzien adierazleak eta mailaketa.

Hasierako mailan orokorrean beren gaitasun eta muga intelektualak ezagutzen dituzten baina ikasteko zailtasunak zeren ondorio diren ez dakiten ikasleak daude; genero-eskuduntza estereotipatuaren ondorio izan daitezke. Ikasteko motibazio eskasa izaten du eta arrakasta izateko itxaropen mugatuak ditu. Bestalde, lana planifikatzea kosta egiten zaio, eta naiz eta ahalegin pertsonalak duen garrantzia ezagutzen duen, zeregin zailen aurrean gogoia galtzen du. Taldean lan egitea gustuko du, eta taldeak ezartzen dituen arauak jarraitzen ditu, bere ekarpenak ez dira oso aipagarriak. Txukuna izateak eta baliabideak ongi erabiltzeak duen garrantziaz ohartzen da baina ez du beti horrela jarduten. Kosta egiten zaio laguntza noiz eta zertarako eskatu behar duen ikustea, nahiz eta badakien bere errendimendua kanpoko laguntzarekin, baita ikasteko teknikak erabiltzen, hobetu egiten dela.

Zeregin baten aurrean dagoenean zailtasunak izaten ditu epe laburrerako, ertainerako eta luzerako plangintza egitea edo faseak arabera ordenan jartzea zailtasunaren; zeregin zailenak maiz uzten ditu bertan behera edo denborarik ez du izaten horiek amaitzeko. Lortutako zenbait ikaskuntza zehatz aipatzen badaki, izandako zenbait akats edo gabezia ikusten ditu, baita erabilitako teknika sinpleenak ere, eta zenbait alderditan, normalean zeregin espezifikoeekin loturik daudenetan, hobetu beharra duela jabetzen da.

Erdi-mailan, hasierako mailan adierazitako gaitasunez gain bere gaitasun intelektualak identifikatzen dituzten baina zailtasunak beti nola gainditu ez dakiten ikasleak daude. Askotan eskolako zereginak egiteko behar den ahaleginaz ohartzen dira, ohiko zereginetan zeregin berrietan baina segurtasun handiagoa du, azkeneko horietan interesa badu ere. Taldean lan egitea gustuko du, proaktiboa da eta zeregin zehatzen ardura hartzen du. Ongi integratzen da baina ez da taldeko lanaren buru izaten. Bere gaitasun fisikoarekin bat datozen zereginak hartzen ditu eta ongi egiten ditu, eta lan egiten nekatzen denean sintomak ezagutzen ditu. Ikastea errazten dioten inguruneke egoerak zerrendatzen badaki eta hobeto ikasteko bere ingurukoek (familia, irakasleak, kideak) eskaintzen dizkioten konfiantzazko eta laguntzeko adierazpenak eta jarrerak ezagutzen ditu. Agenda erabiltzen du epe laburrerako eta ertainerako. Planifikazioari dagokionez, orokorrean baloratzen du zeregin bat egiteko beharko duen denbora, baina zenbait zereginekin loturiko faseak doitzea kosta egiten zaio. Eskolako zeregin bat aurrean duenean horren zailtasuna ikusteko gai da. Zenbait zeregin egiterako orduan badaki zeintzuk diren bere alde indartsuak eta zailtasun batzuk. Zereginen helburuaren arabera badaki teknika sinpleak erabiltzen eta ikasteko baliagarriak diren zenbait informazio-iturri ezagutzen ditu eta gertuko gaietan eta oso zailak ez direnetan informazio garrantzitsuena jaso dezake. Akatsak (lanetan) eta zailtasunak bilatzeko (denbora edo baliabide falta...) eta geroago zuzentzeko emaitzak egiaztatzeko arreta jarri ohi du. Ikasitakoa erabiltzeko egoera berriak identifikatzen ditu.

Maila aurreratuan hasierako mailan eta erdi-mailan adierazitako gaitasunak edukitzeaz gain, bere gaitasun eta muga intelektualak garbi ikusten dituzten ikasleak daude, segurtasuna eta motibazioa dutenak eta ikasteko egoeratan egon daitezkeen zailtasunei aurre egiteko gai direnak. Ikasitakoaren emaitzak bere arduraren,

erantzukizunaren eta ahaleginen ondorioa direla pentsatzen du eta egoera bakoitzaren arabera autorregulatzen du bere burua (nekea, erlaxazioa...) jarduera zeregina egiteko baldintzen arabera egokituz (denbora, baliabideak, zailtasun maila...). Erronkak gustuko ditu eta zeregin zailenei eusten die. Taldeko lanetan ekarpen erabakigarriak egiten ditu eta besteen ekarpenak aintzat hartzen ditu, eta berdin zaio neskek ala mutilek egiten dituzten. Ikastea mesedetzen duen giroa ezagutzen eta erabiltzen ditu eta bestalde, ikastea laguntzen dioten ingurune faktoreak identifikatzen ditu (familia, irakasleak, lagunak) nahiz eta zereginak bere kabuz eta sormenez egiten dituen. Informazio-iturriak erabiltzen badaki eta zeregin bakoitzerako egokienak identifikatzen eta erabiltzen ditu prozedura eta teknika egokiak erabiliz. Agendak ikasteko prozesuaren plangintza epe laburrean, ertainean eta luzean egiteko balio dio, zeregin bakoitzaren tamainaren eta garrantziaren arabera, beharrezkoa bada faseetan zatituz. Arlo instrumentalak ondo menperatzen ditu beraz zeregin zailenen aurrean sormenezko irtenbideak bilatu ditzake, prozedura aldatu edo laguntza eskatu. Ikasitakoa testuinguruarekin eta beste ikasketekin erlazionatzen du, eta eguneroko bizitzako egoeratan erabiltzen daki.

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.

1. Gaitasun eta muga intelektualen ezaguera.

- Bere arreta eta kontzentrazio mailaz, pertzepzio eta behaketa mailaz eta orokorrean duen ahalegin-intelektualerako gaitasunaz jabetzen da.
- Bere memoria nolakoa den eta ikasteko duen garrantziaz jabetzen da.
- Duen hizkuntzaren ulermen eta adierazpen maila ezagutzen du.
- Ezagutzen du zenbateko hausnarketa kritikoa eta sormenezkoa egin ditzakeen.
- Egiten duen ahaleginaren eta lortzen duen emaitzaren arteko harremanaz ohartzen da.
- Arazoak aztertzeko, erabakiak hartzeko, eta abarrerako duen arrazonomendu logikoaren erabilerarako duen gaitasuna ezagutzen du.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Duen arreta eta kontzentrazio mailaz eta pertzepzio eta behaketa mailaz jabetzen da, baina ez daki zailtasunen jatorria identifikatzen. - Bere buruz ikasteko gaitasuna ezagutzen du baina informazioa gogoratzen lagunduko dioten teknikak ez ditu identifikatzen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orokorrean bere gaitasun intelektualak identifikatzen ditu baina kasu guztietan ez daki ikasketa egoera zehaztetako mugak nola gainditu. - Buruz ikasteko duen gaitasunaren ikuspegi egokia du eta zenbait teknika ezagutzen ditu, baina ez ditu erabiltzen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Doituen gaitasun intelektualak eta mugak identifikatzen badaki eta zailtasunen irtenbidea aurkitzen du ikasketa egoera zehaztetan. - Gauzak buruz ikasteko estrategia ezberdinak erabiltzeko duen gaitasunaz habetzen da eta horiek zereginaren arabera noiz eta nola erabili daki.

<p>- Testu errazak ulertzeko duen gaitasuna ezagutzen du baina batzuetan testu batean inkoherentziak edota akatsak ikusteko gai ez da, hala ere, badaki zerbait ulertzen ez duelako laguntza noiz eskatu behar duen.</p>	<p>- Nolabait zailak diren testuak ulertzeko eta idazteko, testuaren ideia nagusia eta helburua identifikatzeko, informazio esanguratsua ateratzeko, kontraesan nabariak aurkitzeko eta testuak laburtzeko duen gaitasunaz jabetzen da.</p>	<p>- Testuak ulertzeko eta bere lanetan testuen informazioa erabiltzeko dituen gaitasunak ezagutzen ditu baita testu batean akatsak edo inkoherentziak aurkitzeko duen gaitasuna ere.</p>
<p>- Ahozko adierazpenerako duen gaitasunaz edota dituen zailtasunez ez da guztiz jabetzen.</p>	<p>- Ahozko adierazpenerako duen gaitasuna ezagutzen du baina bere hitzaldiak ez ditu planifikatzen.</p>	<p>- Ahozko adierazpenerako duen gaitasunaz jabetzen da eta badaki hitzaldiak planifikatzearen eta bestek esaten dutenari entzuteko beharra.</p>
<p>- Gauzak pentsatu gabe egiten ditu eta zereginen aurrean arauak betetzen ditu.</p>	<p>- Egingo duena eta nola egingo duen pentsatzen du baina ez da beti benetako gaitasunetara egokitzen.</p>	<p>- Zeregin bat egiterakoan edo egindako lan bat ebaluatzerakoan analisirako eta sormenerako duen gaitasunaren gain pentsatzen du.</p>
<p>- Ikasterako orduan ahaleginak egitea duen garrantziak jabetzen da baina ez do ondo neurtzen nahi duen helburua lortzeko egin beharreko ahalegina.</p>	<p>- Eguneroko zereginak egiteko badaki zein den egin beharreko ahalegina eta berak egin dezakeena.</p>	<p>- Egindako ahaleginen eta lortutako emaitzen arteko harremana ikusten du eta zeregin bakoitzerako beharrezkoa den ahalegina egiten du.</p>
<p>- Arrazoitzea eskatzen duten zereginetan irakaslearen edo kideen laguntza behar duela jabetzen da.</p>	<p>- Batzuetan ikusten du arrazonamendu logikoa eskatzen duten problemen analisia eta bestelako zereginak metodo egokiarekin eta ordenarekin egiteko duen gaitasuna.</p>	<p>- Segurtasuna du problemen analisia eta ebazpena, erabakiak hartzea, zereginen plangintza etab. ordenan eta arauak jarraituz egiterako orduan.</p>

2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.

- a) Jarrera positiboek ikasten laguntzen diotela jabetzen da: motibazioa, ikasteko gustua, hobetzeko gogoia, pertseberantzia, helburuak lortzeko itxaropena, emozioak menderatzea...
- b) Beregan konfiantza garatzen du.
- c) Badaki zer ezaugarri diren lagungarriak talde-lanerako (lidergoa, enpatia, elkarlanerako ahalegintzea, hartu-eman, etab.) eta berak lana taldean egiteko duen gaitasunaz jabetzen da.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasteko motibazio eskasa izaten du eta arrakasta izateko itxaropen murriztuak ditu. - Zailtasuna izaten du eskolako lanetan emozioak menderatzea. - Zeregin zailen aurrean gogoia galdu ohi du eta besteen laguntza eskatzen du bere gaitasunetan ez duelako konfiantza handirik. - Talde-lana egitea gustuko du eta horrela bere zereginetan hobetzen dela ikusten du (prozesua eta emaitza). - Talde-lanaren garapenerako garrantzi gutxiko ekarpenak egiten ditu baina, batez ere, jarraibideak eta besteek egindako proposamenak jarraitzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntza berriak eskuratzeko eta dagoeneko dituenak hobetzeko interesa du. - Zenbait jarrera eta emozio menderatzeak ikasten laguntzen diola ikusten du. - Ohiko zereginak egiterakoan bere gaitasunetan konfiantza izaten du. - Talde-lanerako lagungarriak diren oinarriko ezaugarriak ezagutzen ditu (adibidez, adostasuna lortzea, elkarrekin lan egiteko ahaleginak egitea, besteei entzutea...). - Talde-lanaren garapenerako ekarpen egokiak egiten ditu eta taldeko beste kideen proposamenak, neskenak edo mutilenak, onartzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Badaki zein gaitasunek eta jarrerek laguntzen dioten ikasten, esaterako, interesa, motibazioa, etab. - Ikasteko prozesuarekin loturiko emozioak nabaritzen, ulertzen, menderatzen eta adierazten ditu. - Orokorrean, eskolako ikaskuntzetan, segurtasuna izaten du eta erronka berriak dituen gauzak ondo egiteko konfiantza du. - Bere emozioak eta besteenak identifikatzen ditu taldearen helburuak lortzeko eta ikaskuntzaren eraginkortasunarekin lotzen ditu. - Talde lanerako ekarpen erabakigarriak egiten ditu eta bere kideen ekarpenak, neskenak edo mutilenak, baloratzen ditu.

3. Gaitasun fisiko-motoreak eta sentsorialak identifikatzea.

- a) Eskolako lanetan zenbait gaitasun fisikok eta sentsorialek duten garrantziaz jabetzen da: adibidez, buru-lanerako erresistentzia fisikoa, ikusmena, entzumena, oreka, etab.
- b) Bere mugimen-trebeziak ezagutzen ditu eta zailtasunak orekatzen badaki.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Kirola egiteko eta, orokorrean, jarduera fisikorako ezaugarri nabariak ezagutzen ditu eta zenbait zentzumenezko gabezia zeregin zehatzak egiteko zailtasunarekin lotzen ditu (esaterako, ikusmena eta gortasuna). - Bere gaitasun fisikoak ezagutzen ditu eta berak egiteko egokiena den zeregina aukeratzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin gehienak zenbait gaitasun fisiko eta zentzumengaitasunekin lotzen ditu eta eraginkortasuna murriztu edo ariketa zailago egin dezaketen eragozpen kopuru handia identifikatzen ditu. - Bere gaitasun fisikoekin bat datozen zereginak hartzen ditu eta ongi egiten ditu eta zenbait zeregin egiterakoan nekeak nola eragiten dion ikusten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun fisiko eta zentzumengaitasunek zeregin bat egiterakoan duten eragina eta helburu bat lortzea baldintzatzen dutela ikusten du. - Bere gaitasun fisikoetara egokitzen diren askotariko zereginak ongi egiten ditu.

<ul style="list-style-type: none"> - Eskolako lanei ekiten die bere gaitasun fisikoak eta zentzumen-gaitasunak gogoan izan gabe. - Iniziatiba falta zaio aurkezten zaizkion zailtasunei aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko. - Objektuak manipulatu dituzte, marrazkiak egiten dituzte, tresnak erabiltzen dituzte... horretarako trebetasun egokienak zeintzuk diren pentsatu gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bere gaitasun fisiko eta zentzumen-gaitasun batzuk identifikatu ditu baina ez die beti probetxua ateratzen eskolako lanak egiterakoan. - Bere zentzumen-zailtasun edo zailtasun fisiko batzuk baliabide edo estrategia simple batzuekin osatu ditu. - Orokorrean, marrazteko eta eskuzko baliabideak erabiltzeko beharrezkoak diren trebetasunegatik ohartzen da, baina ez ditu beti era egokienean erabiltzen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bere gaitasun fisikoak eta zentzumen-gaitasunegatik ohartzen da eta badaki nola lagundu diezaioketen zeregin bakoitza egiterakoan. - Zenbait gabezia estrategia eta baliabide egokien bidez konpentsatu ditu. - Ahalegina neurtzen daki eta zereginak bere gaitasun fisiko eta sentzorialen arabera hartzen eta garatzen ditu.
--	---	--

4. Ikaskuntza estimulatzen duten ingurune baldintzak identifikatzea.

- a) Ikaskuntzan lagungarri diren ingurune faktoreak ezagutu ditu (soinurik ez egotea, argi ona, harreman ona taldekideekin...) eta badaki oztopoak nola gainditu behar diren.
- b) Ikaskuntzan lagungarri diren elementu materialak ezagutu ditu (altzari egokiak, garbitasuna, txukuntasuna...) eta badaki oztopoak nola gainditu.
- c) Bere inguruneen itxaropenak (familia, eskola, lagunak,...) bere ikaskuntza nola estimulatzen duen antzematen du.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza behar izaten du zenbait ingurune egoeren eta bere ikaskuntzaren arteko harremana ikusteko. - Ordenaren eta erabiltzen dituen baliabideak ongi erabiltzearen garrantzia ezagutzen du baina ez da oso saiaturik izaten jarraibideak aplikatzeko orduan. - Bera kontuan izateak gehiago saiatzeko eta hobe ikasteko motibatzen duela onartzen du. - Batzuetan zaila egiten zaio laguntza behar duela ikustea, baina zereginekin gidatzen edo laguntzen diotenean bere errendimendua hobetzen dela ohartzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntza errazten duten zenbait ingurune egoera aipatu ditu. - Erabiltzen dituen baliabideak zaintzen ditu eta txukuntasun eta garbitasun arauak jarraitzen ditu. - Hobeto ikasteko lagungarri izan daitezkeen ingurune zenbait faktore azaldu ditzake. - Badaki laguntza noiz eta nori eskatu (irakasleak, kideak, familia...) eta bere ingurunean hobeto ikasten laguntzen dioten zenbait jokoera zehatz identifikatu ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune egoera egokiek eta ingurune zaindariak eskola-errendimendua hobetzearekin duten harremana ikusten du. - Bere kabuz eta sormenarekin erabiltzen ditu baliabide materialak. - Ikaskuntza errazten dioten zenbait jarrera ikusten ditu bere inguruan, esaterako, konfiantza adieraztea, laguntza eskaintzea, elkarriketa, etab. - Laguntzak, ardurak eta ingurune bestelako estimulu positiboek bere ongizatearekin eta eskolan errendimendua hobea izatearekin harremana dutela pentsatu du.

5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.

- Zeregin bakoitza egiteko teknika egokiena zein den badaki.
- Informazio-iturrien erabileran trebetasun maila ezagutzen du (informazioa eskuratzea, antolatzea, hautatzea eta jakinaraztea).
- Zereginen denborak eta faseak antolatzearen garrantzia ikusten du.
- Eskolarako agenda erabiltzearen baliagarritasunaz jabetzen da.
- Notak hartzeko duen trebetasuna ezagutzen du.
- Elkarlanaren garrantzia onartzen du ikasteko eta irakasteko estrategia gisa.
- Zereginak egiterako orduan bere trebetasun mailaz jabetzen da.
- Zeregin bakoitzean jarraitu beharreko arauak ezagutzen dituen ala ez badaki.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratu
<ul style="list-style-type: none"> - Teknika bat kanpoko laguntzarekin erabiltzen du eta sistematizatzea kosta egiten zaio; batzuetan teknika bakar bat identifikatzen du zeregin bakoitzean lan egiteko. - Badaki ikasteko, lan bat egiteko edo entretenezko informazioa lortu dezakeela, baina laguntza behar izaten du informazio-iturrietara iristeko eta horiek erabiltzeko. - Zereginak egiten hasten da egiteko beharko duen denbora edota berak duen denbora ebaluatu gabe. - Noizbehinka eskolako agenda planifikaziorako tresna gisa erabiltzen du. - Eskolan notak hartzen ditu, orokorrean garrantzitsua ez den informazioa jasoz edo informazio guztia kopiatzen saiatzen da, bereizketarik egin gabe. - Besteekin ados jartzen da taldeko lana egiteko baina zereginak bere gain hartzeko edo proposamenak egiteko autonomia eskasa erakusten du. - Taldeko lanetan gehiago ikasten duela jabetzen da eta jasotzen duen laguntza oso mesedegarria dela ikusten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zereginaren helburuaren arabera teknika errazak modu egokian erabiltzen ditu. - Ikasteko erabilgarriak izan daitezkeen zenbait informazio-iturri ezagutzen ditu eta horietara iristeko eta erabiltzeko duen trebetasunaz jabetzen da. - Zereginaren zailtasun maila identifikatzen du eta hori egiteko denbora nahiko egokia hartzen du. - Bere eguneroko zereginak planifikatzen ditu epe laburrerako eta ertainerako agenda erabiliz. - Ezagunak zaizkion eta oso zailak ez diren gaiak buruzko informazio garrantzitsua idatziz jasotzen du. - Lan-talde bat osatzerakoan jarrera proaktiboa izaten du eta zeregin zehatzen ardura hartzen du bere gain. - Bai neskekin eta bai mutilekin lana taldean egiteak dituen onurak eta garatu beharreko jarrera kooperatiboak ikusten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait tekniken artean egokiena aukeratzen du eta bere kabuz erabiltzen du. Zeregin berrietan ere erabiltzen du, horren ezaugarrietara egokituz. - Zereginaren helburuaren arabera zenbait informazio-iturrietara iristen da eta horiek modu egokian erabiltzen ditu. - Zereginak ordenan jartzen ditu, bakoitzerako beharko duen denboraren eta garrantziaren arabera. Egin beharreko lan bakoitza faseen arabera antolatzen du. - Agenda erabiltzen du eskolako lanen plangintza egiteko eta horiek gauzatzeko epe laburrean eta epe ertainean. - Notak hartu behar direnean, bere mailarekin bat datorren edozein gairi buruzko informazio garrantzitsuena modu ordenatuan jasotzen du. - Lan-taldean ariketak proposatzen ditu eta epeen, baliabideen, eta abarren ardura hartzen du bere gain. - Lan-talde batek ongi funtzionatzeko beharrezkoak diren baldintzak (lidergoa, entzutea, eskuzabaltasuna...) ikusten ditu eta hori horrela izan dadin laguntzen du.

<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin bat egiten lagundu diezaioketen gertuen dituen baliabide pertsonalak eta zenbait baliabide material ezagutzen ditu. - Zeregin bat ongi ala gaizki egiten duen badaki, baina ez daki zertan edo zergatik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin bat egiteko behar ditzakeen askotariko baliabide pertsonalak eta materialak ezagutzen ditu. - Zenbait zeregin egin behar dituenenean badaki zeintzuk diren bere alde indartsuak eta zailtasun batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait baliabideren artean egokienak aukeratzen ditu eta bere kabuz erabiltzen ditu. - Zereginak ongi gauzatzeko prozedura menderatzen duenean ohartzen da edo espero zuen emaitza lortzen ez duenean badaki zer akats egin dituen.
---	--	---

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun eta berritasun maila ezagutzea) eta erabakiak hartzea eta gauzatzea.

- a) Zereginaren helburua zehazten du.
- b) Proposatutako helburuarekin bat datozen ekintzak erabakitzen ditu.
- c) Faseak denboran zehar ordenatzen ditu, epe laburrean, ertainean eta luzean.
- d) Prozedurak eta baliabideak identifikatzen eta hautatzen ditu.
- e) Zereginak zehaztasunez, txukun, xehetasunez eta kreatibitatez egiten ditu.
- f) Zereginak zailtasun eta berritasun mailaren arabera desberdintzen eta sailkatzen ditu.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin zehatzekin lotuta berehala egingo duena adierazten du. - Zereginarekin loturiko ekintza posibleen zerrena bat egiten du baina zerrendako elementuak ez ditu era egokian ordenatzen. - Zeregin baten faseak ordenan jartzeko zailtasunak izaten ditu, batez ere zeregina konplexua bada eta zeregin hori bukatzeko beharko duen denbora ez du egokitzen. - Ezagutzen dituen prozedurak eta baliabideak, maiz sinpleak direnak, partzialki erabiltzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin bat egiterakoan bere kabuz, edo beste kideekin, lortuko duen helburua aurreikusten du. - Helburuak lortzeko ekintza posibleak estrategien eta garrantziaren arabera ordenatzen ditu. - Zeregin batek eskatzen dituen oinarriko faseetan eta jarraitu beharreko arauetan pentsatzen du eta zenbait zereginekin duten harremana aurkitzen du. - Ezagutzen dituen artean, egokien iruditzen zaizkion prozedura eta baliabideak aukeratzen ditu eta zenbait gabezia edo muga identifikatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zeregin baten helburuan lorpen maila ezberdinak daudela ikusten du eta helmuga egokiak jartzen proposatzen dizkio bere buruari bere aukeren, denboraren eta erabilgarri dituen baliabideen arabera. - Helburua lortzeko ekintza egokiak zeintzuk diren erabakitzen du. - Fase bakoitzaren ezaugarriak kontuan izaten ditu lana egiterako orduan zenbat denbora beharko duen aurreikusteko. - Zereginen arrakasta izateko zein prozedura, baliabide eta estrategia erabiliko dituen erabakitzen du eta eskaintzen dituzten aukera guztiak baliatzen ditu.

<ul style="list-style-type: none"> - Prozedura edo teknika bat kanpoko laguntzarekin erabiltzen du eta sistematizatzea kosta egiten zaio. Batzuetan, zeregin bakoitza egiteko teknika bakar bat identifikatzen du eta hura zorrotz erabiltzen du. - Zereginak horiek egitea kostatzen zaionaren arabera desberdintzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zereginaren helburuaren arabera teknika errazak modu egokian erabiltzen ditu. - Zeregin bat egiterako orduan alderdi zailak zeintzuk diren azaltzen du eta graduatu egiten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait tekniken artean egokiena aukeratzen du eta bere kabuz erabiltzen du. Zeregin berrietan ere erabiltzen du, horren ezaugarrietara egokituz. - Zereginak zailtasun mailaren arabera sailkatzen ditu eta bere aukerekin bat datorren ikuspegia dauka.
---	---	--

7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.

- a) Irakurtzen duen arabera doitzen du testuak ulertzeko prozesua (metaulermena).
- b) Emaidza partzialak eta zailtasunak egiaztatzen ditu eta prozesuan zehar akatsak kudeatzen ditu.
- c) Ordezko eta sormenezko irtenbideak ekartzen ditu eta hasierako erabakiak doitzen ditu.
- d) Lorpenak antzematen ditu eta badaki nola ikasi duen.
- e) Hobetu beharreko alderdiak antzematen ditu eta erronka berriak proposatzen dizkio bere buruari.
- f) Ikasitakoa erabiltzeko egoera berriak identifikatzen ditu.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Irakurriaren ulermenarekin loturiko zenbait estrategia eta baliabide kognitibo erabiltzen ditu. - Azaltzen zaizkionean akatsak edo gabeziak ulertzen ditu eta izandako zailtasunak onartzen ditu. - Hasierako plana betetzeko zailtasunaz (adibidez, denbora faltagatik) eta plana egokitzeko beharraz ohartzen da, baina laguntza behar izaten du aldaketak egiteko. - Ikasitako alderdi zehatzek antzematen ditu, batez ere kontzeptu edo ideia eta teknika errazak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mota eta zailtasun askotariko testuak ulertzeko baliagarri zaizkion zenbait teknika erabiltzen ditu segurtasunez. - Zeregin bat egiterakoan izandako zailtasunak identifikatzen ditu eta adierazten zaizkion akatsak zuzentzeko aukerak identifikatzen ditu aurrerantzean egingo dituen zereginei begira. - Zailtasunak identifikatzen ditu (denbora edota baliabide falta, hasierako helburua zehaztea, etab.) eta ondorioz lanerako plana egokitzen du. - Ikasketa egoerarekin loturiko zenbait estrategia eta ikasitako teknika zehatzak deskribatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Testuak ongi ulertzeko bere kabuz planifikazio- eta egiaztatze-mekanismoak erabiltzen ditu. - Prozesuan zehar erabakiak hartzen ditu zenbait akats zuzentzeko, zeregina bukatu arte itxaron gabe. - Aurreikusitako plana betetzeko zailtasunen aurrean sormenezko irtenbideak ekartzen ditu, batzuetan aurreko kasuetako esperientzia baliatuz. - Ikasitakoa, orokorrean, ikasketa testuinguruarekin eta ikasitako erarekin erlazionatuz azaltzen du.

<ul style="list-style-type: none">- Badaki zenbait alderdi hobetu behar dituela baina ez ditu zehazten eta dagoeneko ondo egiten duena hobetzea edo perfektionatzea ez du planteatzen.- Ikasitakoa erabili ahal izateko antzeko egoerak identifikatzen ditu.	<ul style="list-style-type: none">- Badaki zeintzuk diren hobetu beharreko alderdiak, hori lortzeko zenbait baliabide identifikatzen ditu eta helburu berriak lortzeko aukerak planteatzen ditu.- Ikasitakoa erabiltzeko egoera berriak identifikatzen ditu.	<ul style="list-style-type: none">- Bere ikaskuntza hobetzeko eta erronka berriei aurre egiteko erabakiak hartzen ditu bakoitzaren ondorioak modu egokian ebaluatuz.- Ikasitakoa erabiltzeko ikaskuntza testuinguruak edo eguneroko bizitzako egoerak (arlo pribatuan) identifikatzen ditu.
---	---	--